



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

EKIMEN SOZIO EKONOMIKOAK LANDA EREMUAN

KATALOGOA

ETA TOPAKETAK AÑANA ETA MAEZTUN (2021-ko 11.17 eta 12.01)



2021ko abendua

Lantaldea:

Arrate Arin, Imanol Esnaola, Ekain de Olano eta Asier Otxoa

Babesleak:



AURKIBIDEA

1. Sarrera	5
2. Esperientzien aurkezpena.....	7
2.1. Lehen sektorea eta elikadura.....	7
CANDIDO BESA UPATEGIA	7
ERROIZ OLIOAK.....	9
ERREZ KOOPERATIBA.....	11
AÑANAKO HUMUSA.....	13
2.2. Turismoa, gastronomia, aisialdia eta merkataritza txikia	15
ARREA! JATETXEA.....	15
LAUTADA PUZLE ROOM.....	17
GUIKURI MODA.....	19
MENDIALDEKO OGIA	21
2.3. Kultur sorkuntza eta komunikazioa	23
AZALA sorkuntza espazioa	23
MENDIALDEA RADIO	25
MENDIALDEA PRESS – MENDIALDEA.INFO	27
2.4. Energia berriztagarriak.....	29
SABANDOKO BIOMASA PLANTA.....	29
EMASP KOOPERATIBA. Energia erkidegoak	31
2.5. Etxebizitzaren arazoari irtenbideak.....	33
EGIA AHOLKULARITZA. Baserri hutsak	33
ADD HOME STAGING	35
OZAETAKO ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAK	37

2.6. Zerbitzuak landa eremuan.....	39
KUDEA>GO!.....	39
TEKNOADINEKO LANDALAB.....	41
MALERREKA COMMON ZERBITZUAK.....	43
3. Europako esperientziak	45
Iparraldeko herrialdeetako landa-erakargarritasuna.....	45
Orkney irlak: Energia berriztagarrietan espezializazioa	46
Ludgate Hub: estrategia digitala Irlandako landa eremuarentzat	47
Sopotniki: Adineko pertsonen bidelagunak.....	48
Auto elektriko komunitarioa Villerouge-Termenesen	49
4. Ondorioak	50
5. Topaketak Añanan eta Maeztun	52
Lehen topaketa – Azaroak 17 – Añanako Gatz Harana Fundazioa.....	53
Bigarren topaketa – Abenduak I – Arraia-Maeztu	54
Topaketetan sortutako dinamika eta gogoeten emaitzak.....	55

I. Sarrera

Eusko Ikaskuntzaren Lurralde Oreaka programaren helburua da herri txikien eta landa eremuaren egora aztertzea, etorkizuna irudikatzea eta hori eraikitzeke proposamenak lankidetzan garatzea. XX. Mendeko industrializazio- eta urbanizazio-prozesuek biztanleria, jarduera ekonomikoa eta azpiegiturak nukleo handietan biltzea eragin du, landa-eremuen kaltetan. Azken hamarkadetan, galera ekonomiko eta soziodemografikoa bizi izandako lurraldeak berpizteko teoriak eta politika ugari agertu dira, eta nolabait, lurralde-desorekak eta landa- ingurunearekin lortutako zor historikoa zuzentzen saiatzen ari dira.

Tokian oinarritutako egitasmoek, ordea, ezin dute goitik-beherako planifikazioaren bitartez aurrera egin, behetik gorako ekimenak eskatzen dituzte. Hori da, esaterako, gaur egun Europako Batasunak landa garapenari begira indarrean duen LEADER metodologiaren oinarria, gurean landa garapen elkarteek bideratzen dutena.

Gaur egun, eremu urbanoetako gunek jakinetan biltzen dira jarduera ekonomikoak eta hauen artean maila teknologiko handienekoak are kontzentratuago. Fenomeno horrek, era berean, herri txikietako biztanleria gazteena eta ondorioz tokian tokiko jarduerak gorpuztu edo berritzeko aukera gehienak dutenak eremu urbanoetara doaz. Galera moduan har dezakegu joera hori. Ondorioz, gero eta nabariagoa da biztanle gutxiko inguruetan jarduera ekonomikoak eutsi edota berriak sustatzeak duen zailtasuna. Ez da merkatu mailako zailtasun bat, harago doa eta egitura mailako ahultze baten erdian gertatzen da.

Gauzak horrela, egungo ardatz ekonomikoetatik urrun dauden lurraldeetan komunitateak indartuko badira egitasmo bideragarriak beharrezkoak dira. Tokikotasunari lotzeak baditu bere mugak, baina baita bere indarguneak ere. LEADER metodologiak esaterako, Tokiko Ekintza Taldeen bitartez tokian toki dauden indarguneak eta baliabideak ernarazten ditu nor bere eremuan eragile bihurtuz egitasmo jakinen ezarpen eta garapenean.

Katalogo honetan Arabako landa eremuaren eta herri txikien biziberritzeari begira interesgarriak diren egitasmo sozio-ekonomikoak bildu dira. Interesgarriak dira inspiratzaileak eta eredugarriak izan daitezkelako, landa eremuan berrikuntza bultzatzen dutelako, eta baita ere, esperientzia biziak direlako, haien zailtasun eta beharrek, eta haien lorpenekin. Elkarrekin ikasteko eta eraikitzeke tresna gisa ulertu dugu katalogoa, eta beraz, Eusko Ikaskuntzak burutuko dituen foro eta jardunaldietan erabiliko du eta osatzen eta aberasten joango da. Hemen jaso duguna lagin bat da, argi utzi nahi dugu egitasmo hauetaz gain beste hainbat direla interesgarriak eta guztiak izango dutela lekua Eusko Ikaskuntzaren programa honetan, nahi izan ezker.

Egitasmoak hautatzerakoan erabili diren irizpideak ondoko hauek dira. Lehenik eta behin, biztanleria dentsitate baxuko gunek batean burutzen dena izatea, izan ere, identifikatu nahi dugu nolako egitasmo ekonomikoak burutzen diren eta burutu daitezkeen gunek horietan. Bigarren irizpidea da, egitasmoen sustatzaileak landa eremuan bizi proiektua garatzeko ahalegina egitea, eta ondorioz, bertan errotzen diren egitasmoak izatea. Izan ere, gure hipotesia da ekintzailak lokalak, lurraldean errotua bada, ekonomikoaz gain beste eragin positiboak dituela, alegia, biztanleria errotzea, lankidetzan harremanak sortzea beste egitasmoekin eta kohesio soziala eta bizitza komunitarioa indartzea. Zentzu honetan, garrantzitsua iruditu zaigu sustatzaileen artean emakumeek garatutako egitasmoen ikusgarritasuna

ematea. Landa eremuak biziberritzeko ezinbestekoa da emakumeek bizi proiektu erakargarriak garatu ahal izatea. Hirugarrenik, ekimenen aniztasunari erreparatu diogu. Herri txikietan beharrezkoak diren zerbitzuak eskaintzea, dibertsifikazioa eta berrikuntza sustatzea eta behar berriei erantzuten saiatzen diren proiektuak identifikatu nahi izan ditugu.

Azken irizpide honi erantzunez sailkatu ditugu egitasmoak, sektore ekonomikoari begira eta eskaintzen duten zerbitzuari begira. Honela, egitasmoak tipologia hauetan sailkatu ditugu: Lehen sektoreari eta Elikadurari lotutakoak; Aisialdia, turismoa, gastronomia eta merkataritza herri txikietan; Kultur sorkuntza eta komunikazioa; Energia berriztagarriak; Etxebizitzaren arazoari irtenbideak; eta Zerbitzuak landa eremuan. Azken honetan, konkretuki, herri txikietan dauden arazo larriei erantzuna ematen saiatzen ari diren egitasmoak ekarri ditugu, konkretuki, mugikortasunaren arazoa eta adineko pertsonen zaintza, baita gizarteratze enpresa bat ere.

Burutu dugun lan prozesua honako hau izan da. Lehenik, identifikazio zabal bat egin zen eta ondoren, aipatutako irizpidearen arabera hautaketa bat egin zen. Bigarrenik, hautatuko egitasmoen sustatzaileekin harremanetan jarri gara eta proiektuen gaineko informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa bildu da. Informazio hori modu sintetikoan jaso da, fitxa formatu batean. Fitxetan, sustatzaileek eman diguten informazioa biltzen da, eta gehienetan kontaktu datuak bildu dira, izan ere, gure helburua egitasmoen arteko elkar ezagutza erraztea eta sinergiak identifikatzea ere bada. Egitasmoak burutzerakoan sustatzaileek topatu dituzten zailtasun eta oztopoei ere arreta berezia jarri diegu baita irakaspen eta lorpenei ere. Esperientzia horiek baliagarri bilakatu nahi ditugu etorkizunean sortuko diren proiektuentzat. Erakunde publikoetatik jaso duten laguntza eta babesari buruz ere galdetu diegu, horren bidez, politika publikoetatik egiten den eta egin daitekeenari erreparatu nahi izan diogu, eta lankidetzat publiko-pribatuaren ezaugarriak eta aukerak esploratu.

Azkenik, aipatu nahi dugu lan hau Arabako lurraldeari begira egingo dela. Egitasmo gehienak arabarrak dira, baina Euskadi eta Nafarroatik interesgarriak iruditu zaizkigun batzuk bildu ditugu. Eta zentzu berean, Europako esperientzia interesgarri batzuk ere jaso ditugu.

Beraz, eskertu nahi ditugu, bereziki, katalogo honetan agertzen diren egitasmoen sustatzaileak (eta agertzen ez direnak ere), landa eremua biziberritzeko egiten duten ahaleginagatik. Baita ere, informazioa emateko eta argitaratzeko izan duten eskuzabaltasunagatik. Gure eskertza ere, Arabako Foru Aldundiari eta Vital Fundazioari, lan programa hau babesteagatik.

2. Esperientzien aurkezpena

2.1. Lehen sektorea eta elikadura

CANDIDO BESA UPATEGIA



Izena	Candido Besa Upategia
Sustatzaileak	Estibaliz Besa Sanchez (gaur egun), Candido Besa (aitona)
Kokapena	Villabuena de Álava-Eskuernaga, Araba Errioxako Kuadrilla
Jarduera mota	Mahastizaintza ekologikoa
Forma juridikoa	Sozietate zibila
Kontakturako datuak	Mainueta, 19, Villabuena de Álava- Eskuernaga (01307), tlf. 945623355/ 652732986, bodegascandidobesa@telefonica.net
Jardueraren hasiera	1975

Deskribapena

Candido Besa Upategiak mahastigintza ekologikoan aritzen den upategi familiar txiki bat da. Candido Besa, gaur egun gidaritzapean jarduten duen Esti Besaren aitona, 1940. urtean hasi zen ardoa egiten, baina, 1975era arte ez ziren Candido Besa izenarekin ekoizten hasiko.

Gaur egun, 8,5 hektarea mahasti lantzen dituzte. Aitarengandik jasotako jakinduriaren eta urteetan zehar eskuratutako esperientzia baliatuz beraien ardoa “beratze karbonikoa” deituriko prozesuaren bitartez elaboratzen dute. Hau da, hartxidura alkoholikoa egin eta gero mahatsa zapaldu egiten dute, betidanik egin izan den bezala, baina, lan egiteko modu berritzaileak erabiliz, Arabar Errioxako urteko ardo paregabea lortzetik haratago ardo ekologikoa ere ekoizten dute. Eta hau, bezeroekin harreman zuzenak eraikiz, zirkulu txiki batean merkaturatzen dute.

Upategiak jarraitzen duen xedea kalitatezko ardo ekologikoa ekoiztea da, hau honela, lurrari errotutako helburua jarraitzen dute; lurra landuz eta hau lehenera ekarriz ingurumena zaintzen dute, bide horretan, beraiekin elkarlanean aritzen diren pertsonen arteko harremanak ere. Zentzu honetan, upategiaren

begirada agroekologian finkatuta dago, nekazal jarduera iraunkor eta duin baten alde, elikadura-burujabetzan sakontzeko asmoa daukate.

Zailtasunak

Upategiak aurre egin behar izan dituen zailtasun esaguratsuenak kaxkabarrak eta euriteak eragindakoa da. Izan ere, azken bi urteetan eguraldiak eragindako euriteak eta kaxkabarra binikulturara zuzendutako ehundaka hektarea kaltetu izan ditu urteko lan osoa zuntziz. Hau honela, urteko uztak eskasak izan dira eta komertzializatu duten ardo gutxi izan da.

Baita ere, pandemia garaian covid-19 eragindako larrialdi egoeraren ondorioz sortutako ezegonkortasunak proiektua kolpatu zuen.

Irakaspenak

Eskuratutako irakaspenik garrantzitsuenak, lurriari lotutako proiektu txikiak emankorrak direla ikustaraztea izan da. Izan ere, lurra lantzearekin batera lurriari bizia ematen zaio, produktu pozointsuak erabili gabe, eta honek, bueltan fruitu osasuntsuak ematen dizkizu ardo goxoak egin ahal izateko.

Aipatu beharra dago, egunerokotasunean etengabe ikasten dutela gauza berriren bat, esate baterako, polinizazioa errazteko erleak erabiltzen hasi dira.

Inpaktuak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoa, soziala)

Esparru ekonomikoari dagokionez, enpresa honek lau pertsonentzako lana bermatzen ditu. Horrek, demografikoki daukan eragina positiboa da, herrian bizi direlako. Honela, jende gazteak ikusi behar du egitasmo txikien bitartez landa eremuan bizitza proiektuak aurrera eraman ahal direla.

Alor sozialari begira, esan beharra dago, Arabar Errioxan bizi den jende gehiena bitikulturarengandik bizi dela. Eta, mahastigintzatik eratortzen diren bestelako jarduerak, hala nola, enoturismoak, sozialki eragin positibo bat dauka. Izan ere, herrira turistak erakartzen ditu bizitza soziala sustatuz. Gainera, bisita gidatu batzuk euskaraz antolatzen ditu.

Bukatzeko, egitasmoak agroekologian aritzen den heinean ingurumean eragin positibo bat dauka.

Jasotako laguntzak

Seme gazteenak proiektuan lan egiten duenetik, gazteei zuzendutako laguntzak jaso dituzte. Baita ere, Aldundiak mahasti zaharregatik eskaintzen duen diru laguntzak jaso dute, 1000€ ingurukoa. Eta, aseguru etxeengatik ere diru laguntzak jaso dituzte. Mahastigintza ekologikoan aritzeagatik ere laguntzak jaso dituzte.

Kooperazio sareak

Candido Besa Upategia VITISOS proiektuaren parte da, bertan eskualdeko beste upategi batzuekin elkarlanean aritzen dira, elkarren arteko interesak identifikatuz eta hauek indartuz.

ERROIZ OLIOAK



Izena	Erroiz
Sustatzaileak	Izagirre Roitegi familia
Kokapena	Lantziego, Arabar Errioxako Kuadrila
Jarduera mota	Olio ekoizleak
Forma juridikoa	SC (Sozietate Zibila)
Kontakturako datuak	Alarilla kalea, 72, Lantziego, Araba- 688810066, info@erroiz.eus
Jardueraren hasiera	2016

Deskribapena

Izagirre Roitegi familiak abiatutako ekimena da Erroiz, eta Arabar Errioxan bertakoa den Arroniz barietateko olibak prozesatzen dira goi mailako olio orekatu eta zapoetsuak ekoizteko. Bide horretan, olibondoek Euskal Herrian daukaten garrantzi kultural eta ekonomikoa berreskuratu nahi dute.

Aipatu beharra dago, proiektua Lantziegoko herrian zerotik abiatu zela, eta, hasieran 200.000 eurotako inbertsioa egin zutela.

Zailtasunak

Proiektua martxan jarri baino lehen bi urte behar izan zituzten baimen guztiak lortzeko eta traba ugari topatu zituzten bidean. Horietako bat lizentzia lortzea izan zen, Arabako Errioxan legede berezi bat baitago upeltegia ez den negozioa zabaltzeko. Eta gainera, dolarea kokatzeko pabiloia herri-eremutik kanpo egoteak are gehiago trabatu zuen bidea.

Olioaren ekoizpenean hutsetik abiatzen den proiektu batek dauzkan zailtasunak izan zituzten. Izan ere, kontuan hartuta olioaren ekoizpena hilabete bakar batean egiten dela, epe labur horretan hartzen diren erabakiek urte osoan zehar eragiten dute.

Pandemia garaian, produktuaren promozioa egiteko geldialdia suposatu du eta proiektuaren hedapena moteldu egin da, baina aurrera egin dute hala ere.

Irakaspenak

Arabar Errioxako historiari erreparatuz, Arroniz olibatik ekoiztutako olio a goi mailako produktu batean bilakatu izana lorpen garrantzitsua izan da. Bilketaren eta prozesatzearen unea zainduz, arroniz bariatateko oliba-olio birjina estrak egitea lortu dute, kalitatea kantitatearen gainetik jarritz..

Denborarekin, produktua sustatzeko eta salmenta estrategiak hobetzen ari dira.

Inpaktuak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoa, soziala)

Esan genezake, Erroiz egitasmoak, demografian eragin oso txikia izan arren, herriko populazioa mantentzera laguntzen duela.

Alor ekonomikoari begira, enplegu zuzenik sortzen ez duen arren, herria bisitatzea eta bertako establezimendu batzuetan kontsumitzea sustatzen du; hala nola, taberna edo upategietan. Hau da, turismoan eragin zuzena dauka, izan ere, olio a eta olibondoak erakutsi eta ezagutu daitekeen produktu bat da.

Olio a ekoizteak herriak zeukan gabezi bat bete du. Izan ere, upategi edo partikular ugari, ekoizpenerako erabiltzen ez zituzten olibondoak orain Erroiz-en bitartez olio a ekoiztu dezakete. Hau honela, herriko eta inguruko biztanleekin hartu heman zuzen bat sortu dute. Zentzu honetan, olioaren ekoizpena kapital sozial gisa aurkezten zaigu.

Gaur egun, nahiz eta, olioaren ekoizpen osoa ekologikoa ez izan Erroiz-ek egiten duen apustua ekologikoa da. Baita ere, aipatu beharra dago, lurraren higadura ekiditeko olibondoak oso aproposak direla; eta, horrek Arabar Errioxan existitzen den arazo bat konpontzera laguntzen du.

Jasotako laguntzak

Erroiz-ek ez du inolako laguntza ekonomikorik jaso.

Kooperazio sareak

Erroiz egitasmoa Hazi eta Eusko Label-ekin lankidetzan dihartu, eta APRORA elkarteko kide da (Arabar Errioxako Olio Ekoizleak)

ERREZ KOOPERATIBA



Izena	Errez
Sustatzaileak	Iñaki Etxebeste eta Markel Arriolabengoa
Kokapena	Aramaio, Gorbeialdeako kuadrila
Jarduera mota	Basoen kudeaketa jasangarria
Forma juridikoa	Kooperatiba elkarte txikia
Kontakturako datuak	Errotabarri, 5, Aramaio, Araba- 690084773, info@errez.eus
Jardueraren hasiera	2018

Deskribapena

Baso-zerbitzu ekologikoetan espezializatutako Errez kooperatiba hiru lagunek osatzen dute. Iñakik eta Markelek hasitako proiektuaren helburua euskal basogintza XXI. mendeko erronketara egokitzea da.

Proiektuaren hasiera mailakatua izan zen, eta, hasieran, lan-harremanen sareak garrantzi handia izan zuten; horrek gutxieneko lan-karga bermatu zien. Alde horretatik, kooperatiba eratzeaz gain, 2019an Debagoiena 2030 lankidetzaren parte hartzea mugari garrantzitsua izan zen.

Zailtasunak

Hasierako urteetan zailtasun ekonomikoak izan zituzten. Horrek, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa zalantzan jartzera behartu zien; hala ere, argi zeukaten etekin ekonomikoak epe luzera izango zituztela. Esan bezala, egoera honen aurrean gertuko harremanak garrantzi handikoak izan ziren.

Aipatzekoa da, pandemian garaian, aurrez aurreko komunikazioak eta arretak behera egin dela eta horren ondorioz proiektuaren hedapen prozesua eten egin duela.

Irakaspenak

Basogintza sektorean bestelako mezu bat zabaltzea, non eta, Euskal Herriko basoetako jatorrizko espezieetan oinarritutako irtenbide bat ematea posible den. Basogintza-ekologikoa hizpide izanik ingurumenaren kudeaketa ogibide bihurtu dute.

Inpaktuak (demografikoa, ekonomikoa, ingurumenekoa, soziala)

Egitasmoak landa eremuan hainbat inpaktu eragin ditu. Esate baterako, alor demografikoari begira populazioa mantentzera laguntzen du. Izan ere, landa eremuan bizi diren pertsona gutxi batzuentzako lanpostuak sortu ditu.

Herriguneari kapital sozial bat eskaintzen dio, izan ere, basogintza ekologikoaren bitartez garatzen den ekosistema aisialdiari begirako erabilera sustatzen du, hala nola, antolatutako bisita gidatuak, hitzaldiak, ikastaroak edota interpretazio guneak.

Zeharka bada ere, alor ekonomikoa egitasmoak sortzen duen aktibitatea tokian-tokiko denda edota enpresekin harreman ezberdinak sustatzen ditu.

Azkenik, esan beharra dago, basogintza ekologikoa ingurumenaren kudeaketa jasangarri baten alde zuzenean eragiten duela.

Jasotako laguntzak

Proiektua sortzerako orduan Leader diru laguntza jaso zuten, baita ere, kooperatiba eratzerakoan. 2019tik aurrera Tantai¹ proiektua garatzeko diru laguntzak urtero jaso dituzte. Eta, 2020. urtean, Covid 19-ak eragindako pandemiak sortutako krisi ekonomikoari aurre egiteko diru laguntza jaso zuten.

Kooperazio sareak

Debagoiena 2030 Lankidetzaren sarearen baitan beste egitasmo batzuekin harreman zuzena daukate, hala nola, lehen sektorean jarduten duen Erein Da Jan egitasmoarekin.

¹ Ustiapen-eredu jasangarriagoa bilatzen duten baso jabeen kooperatiba (publikoak eta pribatuak). Basoak egokitze gaitasuna duten sistema konplexu gisa kudeatuz.

AÑANAKO HUMUSA



Izena	Añanako Humusa
Sustatzaileak	Andrea Cortes, Tania Busto eta Estibaliz Ramirez
Kokapena	Zambrana eta Berantevilla, Añanako kuadrila
Jarduera mota	Zizare-humusaren ekoizpen eta salmenta
Forma juridikoa	SL (Sozietate Mugatua)
Kontakturako datuak	Calle la Iglesia 3, Portilla, Zambrana, Álava- 690241019 humusdeanana@gmail.com
Jardueraren hasiera	2019

Deskribapena

Añanako humusa zizare-humusa ekoizten eta saltzen duen enpresa da. Lursail bat du Zanbranan, eta biltegi bat. "Eisenia foetida" Kaliforniako zizare gorriak prozesatutako simaurtegitik lortutako biofertilizatzailea lehortu eta bahetzen dute. Helburua kalitateko humusa sortzea eta horregatik aintzatetsiak izatea da. Gainera, landa-eremuek aurre egin behar dieten hiru arazo nagusiren irtenbidearen parte izan nahi dute: nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakin organikoen kudeaketarik eza, nekazaritzako kimikoen erabilera indiskriminatuagatik degradatutako lurzorua eta bereziki gazteen eta emakumeen artean lan-aukerarik ez izatea.

Andrea, Tania eta Estibalizek abiatutako ekimenaren hasiera pixkanakakoa izan zen. Hasieran ikerketa bat egin zen zizare-humusa ekoizteko jarduerari ekiteko beharrezkoa izango zena balioztatzeko. Jarraian, jarduerarako beharrezkoak diren ezaugarriak betetzen dituen finka bat hautatu zuten. Eta, dagoeneko, jarduera bermearekin ekiteko espazio egokia eskuratu ondoren, enpresa-elkartea formalizatu zuten. Une erabakigarri horretan, zizareak erosi eta lehenengo lur eremua erein zuten.

Zailtasunak

Zizare-humusa ekoizteko martxan jarritako egitasmoak izandako zailtasun nagusienetariko bat baimenak lortzea izan zen. Izan ere, zizaregintza jarduera berria denez, katalogatzeko zailtasun handiak daude. Gainera, eragozpen horiek hasierako ilusioa murriztu zuten, izan ere, produktua merkaturatzea ere zaildu zuelako.

Akats ugari egin zituzten zizaregintzan hastean. Izan ere, zizareak izaki bizidunak direla eta egoera ezberdinen aurrean ez dutela berdin jokatzeko kontuan hartuta, tenperaturak eta hezetasunak zizareak hazterako orduan ondorio kaltegarriak eragin ditzazkete. Faktore horiek modu egonkor batean kontrolatu ez izateak zizare-humusaren ekoizpenean zailtasun gehigarri bat dakar.

Pandemiak sortutako errealitate berriak proiektua une batez gelditzera behartu zuen. Baina, kontuan hartuta egoera orokorra hori izan zela ez zuen bestelako eragin berezirik izan humus ekoizpenean.

Irakaspenak

Alde batetik, zizaregintza bezalako jarduera berri baten eskutik, emakumeek landa eremuan egiten duten lana ikusgarri bihurtzea lortu dute. Bestetik, naturak eragindako fenomenoak ezin direla kontrolatu ikasi dute, eta horrek, etengabe agertzen diren arazoei irtenbide berriak bilatzera behartuta ikusi dira. Beraz, bidean agertzen diren ezustekoei irtenbide berriak bilatzeko gaitasuna lortu dute.

Inpaktuak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoa, soziala)

Proiektuak eragin soziala dauka, izan ere, zonaldeko jendeak egitasmoaren nondik norakoen interesa erakutsi dute. Zentzu honetan, Berantevillako bizilagunek humusa erosten dute eta ahoz-ahokoaren bitartez egitasmoa ezagutzera eman da. Baita ere, inguruko abeltzainekin kooperazio harremanak bultzatu dituzte.

Ingurumenari begira, nekazaritza-hondakina, zizarearen digestio-aparatuaren bidez prozesatzen dena, ongari natural bikaina bihurtzen da; horrela, hondakin horren erabilera okerrak ibaiak eta lurrak kutsatzea eragozten da.

Zentzu honetan, zonaldeko abeltzaintzak sortutako hondakin naturala ongari organikoan bilakatzeko aktibitate ekonomikoa sortu du. Izan ere, degradatutako lurzorua lehengoratzeko eta baratzezaintzako hainbat jardueratan erabiltzeko merkaturatzen da.

Jasotako laguntzak

Añanako Humusa egitasmoak laguntza bat jaso du, hain zuzen, Zambranako udaletxeak ekintzailatza diru-laguntza eman die.

Kooperazio sareak

Harreman kooperatibo sendoa sortu da inguruko abeltzainekin. Izan ere, Añanako Humus-an abeltzaintza jarduerak sortutako hondakin naturalari erabilera bikoitza ematen zaio. Ildo horretan, simaurra, ongari organikoan bilakatzeko, zizareen elikagai gisa erabiltzen da.

2.2. Turismoa, gastronomia, aisialdia eta merkataritza txikia

ARREA! JATETXEA



Izena	Arrea! Jatetxea
Sustatzaileak	Edorta Lamo
Kokapena	Santikurutze Kanpezu, Arabako Mendialdeako Kuadrila
Jarduera mota	Jatetxea
Forma juridikoa	S.L.U.
Kontakturako datuak	info@arrea.eus / tlf: 689740370
Jardueraren hasiera	2018ko abendua

Deskribapena

ARREA!, Arabako Mendialdean garatzen den kontzeptu gastronomiko berria da, Edorta Lamoren eskutik, bere sustrai gogor eta basatietara bueltatuz. Isileko ehiza, artisautza, lurrari gurtza, gosea, mendia, muga... oinarrizko osagaiak dira gastronomia pertsonala ta bertakoa burutzeko eta zabaltzeko, kultura eta ohiturak goraiatuz.

Azken hamarkadetan zaindu gabeak eta askotan bere biztanleek ere ahaztuta, ezpeleko goilarak, ikatza, ehiza, basabelarrak, baratza, trufa, ezti, ia desagertu diren bertako frituak eta abar dira, tresna eta osagai bilakatzen direnak bertako kulturaren balioa berriro sustatzeko.

Hortaz ARREA! bertako apustua da beste eragile, ekoizle eta biztanleekin batera kultura propioa, herrikoa, mendikoa eta mugakoa bultzatzeko, honen ezezagutza aukera erakargarria ere baita ezagutu eta kontsumitzeko.

ARREA! gune desberdinez osatzen da (taberna, ukuilu eta jangela) eta proposamen gastronomiko ezberdinak dira bakoitzean: pikoteoak, razioak, eguneko menua, karta, Mendialdea Menua eta ARREA! Menu Gastronomikoa. Eskeintza horrekin behar ezberdinak barne hartzen ditu bai mendizaleentzat, ehiztarietzat, eskualdeko oinezkoentzat, bai gourmet, kuxkuxero edo Mendialdeko turistentzat.

Zailtasunak

Arabako Mendialdean kokatzeko aukeraketa bera apustu arriskutsua da, eskualde-buruan izanda ere.

Ireki eta urtebetera pandemia bere ohiz kanpoko neurriekin heldu izana kolpe latza suposatu du. Sektore kaltetuenetarikoa izan da ostalaritzarena eta bermatu gabeko proiektu hasiberriaren zamak areagotu ditu.

Irakaspenak

Arrea irekitzeko bidean asko izan dira irakaskuntzak. Alde batetik, obra handi bat eskatzen zuen proiektu bat garatzearen berezko irakaspenak, hori ez bait zitzaien tokatu lehenago, izan ere, Donostiako A fuego Negro bezalako aurreko proiektuetan obra txikiak eta dekorazioa izan ziren; eta oraingo honetan asko ikasi behar izan dute eraikuntza enpresei, bankuei, laguntzei eta multzo osoaren kudeaketari buruz. Bestalde, tokiko produktuaren ikerketari dagokionez, proiektuari forma emateko irakaskuntza politak izan dira, bai tokiko ekoizleei erostekoa, bai baratzeko eta mendiko produktuei dagokien bilketa egitekoa.

Inpaktuak (demografikoa, ekonomikoa, ingurumenekoa, soziala)

ARREA! bezalako ekimen baten heltzea inpaktu nabarmena eduki du zonaldean. Eskualdearen ezagutza zabaldu da, ordurarteko zenbait muga apurtuz, Edorta Lamoren gastronomia kontzeptu bereziaren esparrutik hasita eta bere ereduak zeharka goraiatzen dituen lurraldeko beste ezaugarri indartsuetara. Besteak beste, natura eta kultura.

Bertako biztanleriarentzako erreferentzia bihurtu da ere, maila ezberdinetara. Arabako Mendialdean bertakotasunetik berrikuntzarako bidea egin daitekela erakutsiz, adibidez.

Jasotako laguntzak

Laguntzak jaso dira, baina ez dira zehaztu.

Kooperazio sareak

Sareen sorkuntzan oinarritzen da ARREA!-ren eredu. Eskeintzen dituen plateretan, hurbileko lehenengo sektorearen papera ezinbestekoa da, baita ehiztariena edota basafruitu biltzaileena ere.

Gizarte mailan, eraldatzaitzat dituen beste gizarte-eragileekin kolaborazioak burutzen ditu ARREA!-k, ekimen beraren izenean, edo Edorta Lamo ekimen-buru bezala, proiektuaren egonkortzearekin batera sakondu nahi dituen erlaziotan.

LAUTADA PUZLE ROOM



Izena	Lautada Puzzle Room
Sustatzaileak	Maria Concepcion Jimenez Villanueva
Kokapena	Audikana, Arabako Lautadako Kuadrila, Araba
Jarduera mota	Aisialdia: lhesgela
Forma juridikoa	Autonomoa
Kontakturako datuak	Goitiale 3 kalea, 01206, Araba- 699544088 puzleroom@salaescapelautada.com
Jardueraren hasiera	2019

Deskribapena

Lautada Puzzle Room eratzeko ideia sortu zenean egitasmoa aurrera eraman ahal izateko lokal bat bilatu zuten; bitartean, jolasa eta gaia garatzen joan ziren. Ondoren lizentziak lortzeko Audikanako udalarekin harremanetan jarri ziren; esan beharra dago, denbora dezente itxaron zutela lizentziak eskuratzeko. Proiektua aurrera ateratzeko hasierako diru inbertsioa 60.000 eurotakoak izan zen.

Urte erdi geroago, lizentziak prest zeuzkatenean, aurrekontuekin hasi ziren eta jarraian lokalaren egokitzapenarekin. Hau honela, 2019ko martxoan Lautada Puzzle Roomek bere ateak ireki zituen.

Egitasmoaren helburua joko aretoak eskaintzen duen jardueraren berri ematea da. Era honetara, aretoaren aktibitatea areagotzea eta merkatu berrietara hedatzea espero dute. Bide horretan, bigarren joko areto bat sortzeko asmoa daukate, eta, bide batez lanpostu berriak sortzea.

Zailtasunak

Lautada Puzzle Room egitasmoak izan dituen zailtasun esanguratsuenak hiru izan dira. Lehenengoa, landa inguruneko arau subsidiarioak eragindako arazoak. Bigarrena, landa eremurako jarduera berritzailea izanik, egitasmoa aurrera eramateko aurrekontu prebisioa egitea oso zaila da, eta laguntza publikoak eskatzerakoan exigitzen den aurrekontua fidagarria izatea zaila zen. Eta, hirugarren, landa eremuak jasaten duen eten digitala da. Zentzu honetan, zuntzu optikoa herriaren erdigunera iristen da, baina, ez joko aretora; eta, telefono bidezko estaldura ere defizitarioa da.

Pandemiak eragina izan du proiektuan. Geldialdiaz haratago, aktibitatea berreskuratzerakoan, parte-hartzaile taldeen artean denbora gehiago behar izan dute lokalaren garbiketa sakona egin ahal izateko, eta, ahal zen heinean kutsatzeak saihesteko.

Irakaspenak

Esan genezake, negozio baten kudeaketa integrala aurrera eramatea jasotako irakaspenen artean garrantzitsuenak izan dela. Izan ere, autonomo gisa izandako lehenengo esperientzia da, eta, hau zerotik abiatu zen. Hau honela, autonomo bezala jarraitu beharreko arauak, ordaindu beharreko zergak, edota, marketing digitalaren inguruan eta erakundeekin mantendu beharreko harremanak irakaspen positiboak izan dira.

Baita ere, aipatu beharra dago, bezeroekin gertuko harreman bat izatea eta hau zaintzea beraien zirkuluan gomendatzeko balio izan du.

Azkenik, jendea Arabako Lautadako herri txiki batera jolastera hurbiltzea landa eremua ezagutzera bultzatzen du.

Inpaktuak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoa, soziala)

Ekimen honek landa eremuari positiboki laguntzen dio. Izan ere, lehen sektoreaz gain, bestelako zerbitzu mota bat eskaintzeak, landa eremuan lanpostu berriak sortzea eta horrela herrian bertan bizitzea posible egiten du.

Lautada Puzzle Roomek bisitariak herrira erakartzen dituen heinean, horietako askori, inguruan bazkaltzera bultzatzen ditu; baita ere, aisialdiko eta naturako beste jarduerak batzuk egitera. Zentzu honetan, egitasmo honek ekonomikoki zonaldean inpaktu positibo bat eragiten du.

Bisitarien eraginez eta hauek herritik paseatzerakoan bizilagunekin elkarriketak izaten dituzte. Kontuan hartuta herri txikietan ez dela oso ohikoa, kaleetan zehar, bospasei laguneko taldeak ikustea, esan behar dugu sozialki ere inpaktu positiboa sortzen duela.

Ingurumenari begira, ihes-gelen berezko jarduerak ez da kaltegarria. Hau da, ez ditu hondakinak sortzen.

Jasotako laguntzak

Lautada Puzzle Roomek Feader eta Leader diru laguntzak jaso ditu. Eta, inbertsiorako eta start up delakoetarako diru laguntzak. Baita ere, enpresa plana eta plan ekonomiko-finantzarioa egiteko aholkularitza, eta, web orriari eta sare sozialei buruzko ikastaroa eta aholkularitza.

Kooperazio sareak

Lautada Puzzle Room-ek hurbileko hainbat agenteekin kooperatzen du. Hala nola, Argomaniz paradorearekin, non eta, gonbidatuei liburuxka baten bitartez jardueraren berri ematen zaien. Baita ere, Aguraingo turismo-bulegoan eta eskualdeko aisialdi eta kirol jardueretarako guneeetan. Eta, Arabamarket-eko webgunean (Arabako eta Trebiñuko landa-negozioen erakuslehoan) agertzen da.

Aipatu beharra dago, hurbileko beste ihes-aretoekin ere kooperazio sareak sortu direla, eta, Nafarroako eta Gaztelako landa-inguruneen ihes-aretoekin elkarlanean ari direla.

GUIKURI MODA



Izena	Guikuri moda
Sustatzaileak	Nuria Lopez de Letona eta Marisa Suso
Kokapena	Manurga, Zigoitia, Gorbeialdeako Kuadrila
Jarduera mota	Arropa denda ibiltaria
Forma juridikoa	Kooperatiba elkarte txikia
Kontakturako datuak	Manurga, Nagusia kalea, 8 znbk, 01138, Araba; tlf. 685737210; guikuri@euskalnet.net
Jardueraren hasiera	2011

Deskribapena

Guikuri Manurgako moda-jantzien denda bat da. Komertzioa Nuria Lopez de Letona eta Maria Suso bazkide kooperatibistek zuzentzen dute. Lehenenak, 2011. urtean Muruako landetxearekin hasi zuen jarduera. Eta 2018an gaur egun lankidea duen Mariarekin egitasmoa Manurgara lekualdatu zuten. Hau honela, 2020an, hain justu pandemiaren aurretik kooperatiba eratu zuten, eta irailean denda ibiltaria martxan jarri zuten.

Guikuriren helburu nagusia emakumeetzako arropa zerbitzu bat ematea da, arropa denda atek ireki aurretik eskualdean existitzen ez zena. Etorkizunari begira, eskuratutako bezeroen leialtasunari esker hiriburuetan aurkitzen diren frankizia handietatik bereiziko den zerbitzu espezializatua eskaintzen jarraitu nahi dute. Gainera, denda erreferentzia puntu eta erosketa esperientzia izatea lortu nahi dute, bezeroak ezagutu, eta horrela berariazko aukeratutako artikuluak eskaini, tratu pertsonalizatu eta hurbilekoa emanez.

Zailtasunak

Aurrez aurre duten zailtasunik esanguratsuen moda denda bati dagokiona da, hain zuzen, bezeroentzako artikulu interesgarriak eskaintzen dituzten hornitzaileak bilatzea.

Aipatu behar dugun beste zailtasunetako bat administrazio-oztopoak dira, esate baterako, arropa denda baten merkataritza jarduerari ekiteko lehenik etxebizitza bat eraiki behar izan zuten. Izan ere, indarrean dagoen araudia hain zaharra denez ez du aurreikusten denda bat irekitzeko aukerarik. Era berean,

autobus ibiltariaren ideia aurrera eraman ahal izateko, lehenik eta behin autobus bat aurkitu behar izan zuten, baldintza batzuk betetzen zituena eta homologatzeko erraza zena, denda ibiltarian bihur zedin.

Azkenik, covid-19ak eragindako pandemian, udalerriak itxita zeudenean herri txikietakoko populazioa konturan harturik dendako erosle posible kopurua oso baxua zen. Hau honela, udalerrien itxiera perimetrala iraun zuen bitartean denda fisikoan ez zen kasi salmentarik egin.

Irakaspenak

Hirurogei biztanleko herri batean modan dagoen arropa denda bat sortzea eta hiriburu bateko beste edozein saltokiren parean dagoen bezero kopurua lortzea izan da irakaspen garrantzitsuenetakoa. Era berean, moda desfileak antolatzeko eta 300 lagun bertaratzea lortzeko gaitasuna izatea.

Halaber, denda ibiltariari esker pandemiak sortutako egoerara egokitzea lortu zuten, eta, hala, beharrezko baimenei esker, hainbat udalerrietara joatea lortu zuten, horiek itxita zeudenean.

Inpaktuak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoa, soziala)

Landa ingurunekeo ekimen guztiek bezala, eragozpen administratiboek sortutako gora-behereen gaineratik, Guikurik ere bizia ematen dio herriari eta beste ekimen batzuk landa eremuan ezartzen asko laguntzen du. Izan ere, landa ingurunean indarrean dauden arau administratiboek ez dituzte horrelako merkatal ekimenik aurreikusten.

Sozialki, Guikurik konfiantza sareak sortzen ditu eta herriko bizitza sozialean modu positiboan eragiten du.

Arlo ekonomikoan bi sustatzaileentzat enplegua sortu du. Eta establezimenduak beste ekimen batzuek sortutako produktuak saltzeko aukera ematen du.

Azkenik, aitortu behar dugu jarduera honek ez duela ingurumenean inpaktu positiborik. Hala ere, plastikorik ez duten arropak erosten saiatzen dira, baita birziklatzen ere. Halaber, denboraldi bakoitzaren ondoren geratzen zaien stockarekin enkante bat antolatzen dute kausa solidario bati laguntzeko.

Jasotako laguntzak

Ekimen honek kooperatiba bezala eratzeagatik Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso zuen. Eta autobusa erosterakoan Leader programari zegokion laguntza ekonomikoa jaso zuten. Gorbeialdeako Kuadrillaren laguntza ere jaso dute, kuadrillak moda desfileak antolatu dituenen.

Kooperazio sareak

Ekitaldi edo desfileren bat antolatzeko orduan, inguruko beste enpresak inplikatzeko saiatzen dira, lankidetzako sareak sortzeko. Adibidez, Lamiak biokosmetikarekin kolaboratzen dute edota Baias garagordoekin.

Desfileren baterako antolakuntzan Gorbeialdeako Kuadrillarekin kolaboratzen dute.

MENDIALDEKO OGIA



Izena	Mendialdeko Ogia
Sustatzaileak	Anna Montserrat eta Nacho Beltrán de Heredia
Kokapena	Maeztu, Mendialdeako kuadrila, Araba
Jarduera mota	Ogi ekologiko lantegia eta agrodenda
Forma juridikoa	Kooperatiba elkarte txikia
Kontakturako datuak	La Estación, 7, Maeztu, Alava - 945 41 02 18 mendialdekoogia.webnode.es
Jardueraren hasiera	2014

Deskribapena

Mendialdeako Ogia Maeztun kokatutako okindegi bat da. Bertan, ogi ekologikoa ekoizten dute eta produktu ekologiko ezberdinak saltzen dituzte. Anna eta Natxo sustatzaileek Bartzelonatik etorri ziren landa-eremuan bizibide bat sortzeko asmoz eta gaur egun lau lagun enplegatzen duen okindegia abiatu zuten. Mendialdeako Ogia proiektu iraunkorra eta ingurunea errespetatzen duen egitasmoa da.

Aipatu beharra dago, proiektuaren garapena motela izan zela, izan ere, baliabide propioekin eta inbertsio txikien bitartez aurrera egin duelako. Hortik abiatuta, eta behin proiektua finkatu denean, inbertsioa handitzen joan ziren. Emandako urratsen artean, mugarri nagusia lokal egoki bat lortzea eta eskari egonkorra sortzea eta sendotzea izan dira. Ezinbestekoa izan da Arabako ekologikoan diharduten beste ekoizle txiki batzuekin sarean lan egitea, Bionekazaritza elkartearen bitartez.

Zailtasunak

Aipatu den bezala, zailtasun esanguratsuena lokal egoki bat lortzea izan da; baita ere, herrian etxebizitza bat eskuratzea. Era berean, obra berri bat egiterako unean beharrezkoa den udal-lizentzia lortzeko legeak ezartzen dituen hiru hilabeteko epea gainditu zuten, eta esan behar da atzerapen horrek finantzaketa gutxiko proiektu txiki batentzako eragin ekonomikoak izan zituela. Baita ere, zerotik abiatuta proiektua izanik hasieran prestakuntza handiagoa izateak azkarrago hazten langunduko zien.

Irakaspenak

Irakaspen nagusia landa-ingurunean enplegua sortzea izan da, baita ere, iraunkorra eta jasagarria den proiektu bat zerotik abiatzea. Izan ere, produktu jasagarriak, gustagarriak eta osasungarriak agente kimikorik gabe egiten ikasi dira. Halaber, tokiko gari-barietateen eta haien ekoizpen-katearen balioa nabarmentzea. Bide horretan, elkarrekiko konfiantzan oinarritutako ekoizle-sareak sortzen lagundu dute.

Pandemiak eragindako errealitate berriaren ondorioz landa eremuan bizi diren pertsonak tokian toki existitzen diren zerbitzu ezberdinak balioan jartzea lagundu du.

Inpaktuak (Demografikoa, Ekonomikoa, Ingurumena, Soziala)

Mendialdeako ogia egitasmoak demografikoki eragina du, izan ere, enplegua sortzen duen heinean herritarrek landa eremuan bizitzeko erraztasunak sortzen ditu. Baita ere, oinarritzko eta kalitatezko zerbitzu bat eskaintzen duelako. Bide berean, ekonomikoki ere inpaktu positiboa sortzen du, izan ere, tokiko merkataritza sustatzen baitu.

Jarduera ekonomiko oro bezala, ingurunea dinamizatzen du eta ekonomia zirkularren aldeko apustua egiten duen proiektua da. *Agroendak* produktu ekologikoak edo hurbilekoak eskaintzen ditu eta horrek ekoizleen arteko loturak eta lankidetzak sortzea dakar, eta hurbileko kontsumitzaileek ekoizteko modua baliostera laguntzen du.

Ingurumenari begira, esan beharra dago, Mendialdeako ogian egiten diren elaborazio guztiak eta eskaintzen dituzten produktu gehienak ekologikoak eta hurbilekoak direla.

Jasotako laguntzak

Hainbat laguntza programek eskaintako diru laguntzak jaso ditu; hala nola, Lehiatu Berria, Leader eta Arabako Foru Aldundiak emandakoak.

Kooperazio sareak

Bionekazaritzako kide dira, eta, horren barruan, *saskibarazki* izeneko ekoizle talde bateko parte. Saskibarazkiren bitartez produktuak merkaturatzeko laguntza jasotzen dute. Era berean, Arabako Mendialdea marka sustatzeko Laborariak elkarteko kide ere badira.

2.3. Kultur sorkuntza eta komunikazioa

AZALA sorkuntza espazioa



Izena	AZALA
Sustatzaileak	Idoia Zabaleta eta Juan Gonzalez
Kokapena	Lasierra, Añanako Kuadrila
Jarduera mota	Kreazio espazioa
Forma juridikoa	SL
Kontakturako datuak	Lasierra, 15, Erribera Goiti 01428, Araba- 665705136
Jardueraren hasiera	2008

Deskribapena

Azala 2008. urtean sorkuntza espazio bat bezala sortu zen. Gaur egun, kultur sorkuntzara zuzendutako egitura eta ostatu bezala ere funtzionatzen duen proiektuak lau lagun enplegatzen ditu.

Esan beharra dago, proiektuaren ideia askoz lehenago existitzen zela, hain zuzen ere, 1998an, Idoia eta Juan Lasierran bizitzen jarri zirenean, etxe aurreko lursail bat erosteko adina diru aurretzen hasi ziren. 2008an Leader laguntza jaso zuten eta Espainiar Kultura Ministerioak 2009an espazio eszeniko berriak sortzeko laguntza eman zieten, eta honela “Azala” proiektua abian jarri ahal izan zen krisi garaiaren muinean. Orduan eraiki ziren bost etxetxoak, txokoa eta lehen ikasketa gela.

2017. urtean Eusko Jaurlaritzaren eskutik “Gure Artea” saria jaso zuten. 2018an, lurraldean kokaturik dauden alternatibei ikusgarritasuna eman nahian, “Zirriborroak eta gero” ipuinen bildumaren proiektua abian jarri zuten, eta Azala, halaber, Lasierran baso osasuntsuen eta komunitate energetikoaren sorreran murgildu zen.

Zailtasunak

Azala proiektuak administrazio lokalaren inplikazioa bilatu du baina ez du espero zitekeen babesia lortu. Hori dela eta, lurraldean dinamika kultural berriak martxan jartzea zaila bilakatu da.

Irakaspenak

Alde batetik, Azalak sinistu dituen proiektuak aurrera eramanez, eta, zentzu horretan gauzak ondo egin izanaren sentzazioa daukate; horren erakusgarri da 2017an jasotako saria.

Bestetik, erakundeek laguntza nahikoa jaso ez duten arren, ez dute inoiz amore eman. Hori esanda, ateratzen duten ikasgai bikoitza ondorengoa da: ezin da erakundeek inplikazio aktiboaren zain egon, hala ere, badakite Azala bezalako proiektu handi bat ez dela bideragarria tokiko erakundeek lankidetzarik ez badago.

Aipatzekoa da pandemian zehar hainbat proiektu jarri dituztela martxan, esaterako, *Zirriborroak eta gero* proiektuko 3 ipuin publikatu, egoera zailean izan diren hainbat artista lagundu, energia-komunitatea bultzatu, iturburu zaharraren berreskurapena eta Otsoen Leizeko bidea, intxaurrondoak landatzea, etab. luze bat.

Inpaktuak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoa, soziala)

Azala egitasmoa Lasierran garatzen hasi zenetik beste zortzi pertsona gehiago bizi dira herrian bertan. Beraz, esan daiteke, proiektuak demografikoki inpaktu positibo bat izan duela.

Alor ekonomikoari begira, sorkuntza espazioan tokiko produktuak saltzen dira, hala nola, ardoa, ezta edota babarrunak. Zentzu honetan, Azalak bestelako aktibitate ekonomiko bat sortzen du.

Aipatu bezala Lasierran komunitate energetiko bat sortzen lagundu dute, baita ere, basoen zaintzari zuzendutako proiektu bat. Ildo horretan, iturburu bat berreskuratzeko lanak, makroproiektu eolikoek salaketa eta ur-partzuergoaren zentralizazioa aipatu behar dira. Hau honela, Azala proiektuak ingurumenarekin batera bideragarriak diren bizitza estilo berriekin konprometitutako ekimenak ikusaraztera ematen ditu.

Bide horretan, zonaldeko kapital soziala indartzen dute. Izan ere, *Añana FemEmprende*, *Basoalde*² bezalako sareetan parte hartzen dute eta lurraldean garatu nahi diren beste proiektuei laguntza eskeintzen diete. Azala Karraskan elkartearen kide da eta Lab-a landa eremuan bitartekaritza kulturalerako programa garatzen ari da 2021-2022 urtetan zehar.

Jasotako laguntzak

2008. urtean Leader dirulaguntza jaso zuten. Eta, 2009an Espainiar Kultura Ministerioak espazio eszeniko berriak sortzeko jasotakoa. Urtero Eusko Jaurlaritzatik 55.000 eurotakoa eta I.N.A.E.M-tik 6.000 eurotako laguntza jasotzen dute. Eta, 2021. urtean Vital Fundaziotik 15.000 eurako dirulaguntza jaso dute Lab-a, bitartekaritza kulturalerako berriztatze tresnak lantzeko laborategia sustatzeko. Bestetik Arabako Foru Aldundiak ez du Azala fundamentuz lagundu 14 urte hauetan

Kooperazio sareak

Aipatu bezala, Azala egitasmoak *Añana FemEmprende* eta Basoalderekin kooperatzen du. Baita ere, Garaion, DanzAlava, Atalak, Kalakalab, Colectivo RPM, L'animal a l'esquena, Arte-a eta Karraskan mugimenduekin.

² Penintsulako iparraldean dauden basoko bainuen gidien elkarteak, Euskal Herriko eta Asturiasko lurralde eremuetan fokalizatuta.

MENDIALDEA RADIO



Izena	MendiAldea Radio
Sustatzaileak	Aritz Ibañez Ranero
Kokapena	Lagran, Arabako MendiAldeako Kuadrila
Jarduera mota	Komunikabidea
Forma juridikoa	Autonomia
Kontakturako datuak	mendiAldea.radio@gmail.com / tlf: 600511821
Jardueraren hasiera	Iraila 2020

Deskribapena

Lagranen oinarria izanda Arabako MendiAldeko Koadrila osotik lan egiten duen elkarlaneko komunikazio-proiektua da MendiAldea Radio. "Arrakala kontzeptuala ixten" leloaren bidez, landa-kontakizun berri bat eraikitzen joatea proposatzen du. Orain arte, berezko errekurtsioekin garatu den proiektua da. Hala ere, oztopo eta zailtasun guztien gainetik, eskualdean aurrerapen soziokulturala ekarri duela esan daiteke. Bertako jendeak, bertako jendearentzako sorturiko informazio dinamizatua.

Gaur egun, pertsona bat dihardu bultzatzaile-koordinatzaile lanetan. Nabarmendu beharrekoa, ordea, pertsona zein kolektibo eta gizarte-eragile ugari parte hartu dutela edo aldizka kolaboratzen eta parte hartzen dutela eta lankidetzak berriak gehitzeko bidean daudela, egitasmoari benetako zentzua emanez.

2020-an, HAZI Fundazioaren Labean proiektuan, 'Arabako MendiAldeko ekimen pribatuko berrikuntza sozialeko proiekturik hobereena'-ren saria eta, gertuago, Alava Enprende-ren 'Zure ideiak balio du' lehiaketan, 'Krisialditik ateratzeko ideia eraldatzaile onena'-ren saria jaso zituen. Orain helburua ekiman indartzea zabaltzea da, Rural Refounding Araba proiektuaren barruan. Azken hau, Arabako landa eremuko eskualde ezberdinetan eta bakoitzaren ezaugarri zein errekurtsioen arabera, pertsona eta gizarte-eragile anitz ezberdinek garatutako narratiba transmedian oinarrituriko da. Bertako komunikazio eta informazio dinamizaturako proiektua da, alegia. Landa-kontakizun berri bat sortzea eta zabaltzea, kontakizun plural berri baten bidez.

Zailtasunak

Egitasmoak izandako zailtasun esanguratsuenak, esperientzia barik irratia bezalako proiektu bat zerotik abiatzea izan da. Aipatu behar dira ere lan baldintza prekarioetan lan egin beharra eta oraindik administrazio publikotik laguntzarik jaso ez izana, naiz eta kolaborazio publiko-pribatua sortzeko elkarrizketa aurreratuak daudela gaur egun. Onartu beharreko akats bat, herriz-herriko aurkezpenak atzeratu izana da. Izan ere, lan karga eta pandemiaren ondorioz sorturiko limitazioak eta osasun neurriak zirela eta sozializazio prozesua atzeratzea erabaki zen eta horrek ez du ahalbidetu Mendialdea Radio-ren garapen natural bat.

Irakaspenak

Beste hainbat egitasmo eta, batez ere, horien atzean dauden pertsonak ezagutzea eta hauekin eskuratutako kooperazioa eta elkarlanean aritzeko konpromezua izan dira saririk esanguratsuenak.

Inpaktuak (demografikoa, ekonomikoa, ingurumenekoa, soziala)

Irrati-kolaboratiboa bezalako komunikabide bat kohesio sozialerako erreminta bat da, izan ere, partehartze gurutzatua sustatzen bait du, zonaldean gertatzen denari buruzko informazioa zabaltzeaz gain; hau honela, elkar ezagutzan laguntzen du eta zonaldeko erreferentzia propioak sortu eta garatzeko erreminta oso baliagarria da.

Egitasmoak ez du zuzeneko eragin ekonomikorik sortzen gaur egun, bai ordea zuzenekoa ez dena.

Jasotako laguntzak

Egitasmo honek ez du gaur arte laguntza ekonomikorik jaso.

Kooperazio sareak

Hainbat pertsona, elkarte eta gizarte-eragilek modu zuzenean hartu dute edo hartzen dute parte, hala nola, Thusia³, Arratiandi Kultur Elkartea⁴, Mendialdea Musika Elkartea⁵ eta Natouring SA-k⁶, Mendialdea IPI⁷-ko ikasleen partehartzerako akordiora ere iritsi direlarik. Harreman sare honen zabaltze lanetan jarraitzen du Mendialdea Radio-k, komunitate osoak bere lekua topa dezakeen kulturarteko eta belaunaldiarteko proiektuan.

³ Antzerki konpainia eta fikzio sortzaileak


⁴ Atauri Art umorezko antzerki jaialdiaren antolatzaileak

⁵ Mendialdea Music Festival jaialdiaren antolatzaileak

⁶ Mendialdea Press aldizkaria eta Mendialdea.info web orriaren kudeatzaileak

⁷ Ikastetxe publiko integrala

MENDIALDEA PRESS – MENDIALDEA.INFO



Izena	Mendialdea Press aldizkaria eta Mendialdea.info weba
Sustatzaileak	Oskar Anzuola - Natouring, Turismo, Comunicación y M. Ambiente
Kokapena	Kanpezu – Arabako Mendialdea
Jarduera mota	Komunikazioa – Zabalkundea
Forma juridikoa	Sociedad Limitada
Kontaktuko datuak	oanzuola@gmail.com 656773969 info@natouring.net
Jardueraren hasiera	1993

Deskribapena

Mendialdea Press Arabako Mendialdeko aldizkari dekanoa da, eta garapen-fasean dagoen proiektu komunikatibo zabalago baten oinarria. 28 urteko ibilbidea du tokiko informazioa lantzen, hiru hilean behin Mendialdeko landa-eremuko biztanleen % 100era zuzenean iristen den inprimatutako bitarteko horren bidez.

Ibilbide horrek ingurune fisikoaren eta bertako biztanleen hurbileko ezagutza ekarri die. Eredua finkatuta egon arren, informazioa egunero emateko beharra ikusi da, kazetaritza-irizpide berberetatik eta etxetik. Horregatik, eta 2020ko uztailaz geroztik, Mendialdea.info jarri zen martxan, lehen leiho eta web-tresna informatibo gisa, sareen laguntzaz, Mendialdean eguneroko albisteen estaldura hori bideratzeko eta etxe bakoitzean jasotzen den komunikabidearekin zerbitzu- eta nortasun-sinergiak ezartzeko.

Zailtasunak

Zailtasun nagusia ekonomikoa da alde digitalean. Paperezko aldizkariak finantzaketa publiko-pribatu bat finkatuta du (Arabako Mendialdeko Koadrilako lehiaketa publiko baten bidez), bai oraindik ez da erabaki eredu hori informazio-webgunera zabaltzea.

Irakaskuntzak

Lehenik eta behin, landa-eremuko auzokoek hurbileko informazioa ezagutzea eskatzen dute, eta MendiAldea Pressek 1993tik Arabako MendiAldeko kide izatearen sentimendua sortzen lagundu du. Orain hogeita hamar urteko gazteak aldizkariarekin hazi dira eta erreferente bat da haientzat. Gaur egun, belaunaldi honek eguneroko informazioa erabiltzen du, sare sozialak eta beste web tresna batzuk erabiltzen ditu. Proiektu honen irakaspena da lokala dena formatu finkatu batean kontatzeko esentziari eutsi diezaiokeela, baina aldi berean, eta, bere oinarria eta baliabideak aprobeztatuz, formatu digitala erabil dezakeela egunean eguneratutako informazio-zerbitzu bat emateko.

Bestetik, pentsatzen dute aldizkarirako funtzionatzen duen lankidetzaren publiko-pribatuak aldizkari digitalean ere funtziona dezakela.

Eraginak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoak, sozialak)

Zuzeneko inpaktu ekonomikoa sortzen da, jarduera horrek kazetari baten bizibidea dakarrelako, eta, gainera, kazetari horren jardueraz beste laguntzaile batzuk baliatzen direlako. Inpaktu ekonomikoa da, halaber, irakurleek kontsumitu eta/edo erabiliko dituzten produktu edo zerbitzuekin publizitate-leiho bat eskaintzea, egiten ari den bezala.

Gizarte mailan, bertako biztanleen eta gertatzen zaienaren ezagutzaren inpaktu egiaztatua dago. Gazteek ere MendiAldea Press bidez ezagutu dute beren eskualdea, eta orain MendiAldea.info-rekin ere gehiago ezagutzea da helburua.

Jasotako laguntzak

Inprimatutako aldizkariak badu partaidetza ekonomiko publiko bat, indarrean dagoen zerbitzu-kontratuaren barruan sartzen dena, eta diru-sarreraren zati pribatua osatzen du. Bitarteko digitalak 2020. urteaz geroztik funtzionatzen du, inolako ekarpen edo laguntzarik gabe.


Lankidetzaren sareak

Alde batetik, barne-lankidetzako sarea da MendiAldea press eta MendiAldea.info-k beren jarduera kokatzen duten sozietatea. Natouring, Turismoa, Komunikazioa eta Ingurumena hainbat arlotako lau profesionalek osatutako enpresa da, eta balio komun batzuk ditu: lurraldearekiko konpromisoa eta natura- eta kultura-ondarearen kontserbazioa. Garatzen diren jardueren artean erlazio sinergikoa dago. Horrela, informazio-komunikazioak eskualdearen ezagutza zabaltzen du, eta turismoa sustatzen du. Bestalde jarduera turistikoak inguruko ingurumen-balioekin bat egiten du eta jarduera ekonomiko bat sortzen du. Natouring Sozietatea coworking gisa uler daiteke.

Bestalde, eskualdeko sare oso bat dago, duela 28 urtetik informazioaren inguruan ehundua. Sare instituzionala dago, udalekin, Kuadrillarekin, Izkiko LGEarekin, kontzejuekin eta Arabako Foru Aldundiarekin. Azpimarragarria da kontzejuen lana, herri bakoitzean aldizkaria etxetik etxetik banatzen baitute. Auzolanerako modu bat, oraindik ere aktibo dagoena. Sareak barne hartzen ditu, halaber, kultura-elkarteen sare osoa, nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorea, eskualdeko enpresak eta zerbitzuak eta MendiAldean bizi diren pertsona guztiak, lantzen eta eskaintzen den informazioaren protagonistak eta hartzaileak baitira aldi berean.

2.4. Energia berriztagarriak

SABANDOKO BIOMASA PLANTA



Izena	Sabandoko Biomasa planta
Sustatzaileak	Sabandoko administrazio batzarra
Kokapena	Sabando, Arraia-Maeztu, Mendialdeko kuadrila, Araba
Jarduera mota	Tokiko biomasaren ustiapena
Forma juridikoa	Entitate publikoa
Kontakturako datuak	Kale Nagusia, 01129 Sabando, Araba
Jardueraren hasiera	2012

Deskribapena

Biomasa planta bat sortzeko ideia Sabandoren administrazio batzarrean sortu zen. Instalazioak ura eta berokuntza sortzen ditu hiriguneko etxe guztietan, biomasa-materiala erabiliz. Horrela, kostuak merketzea eta udalerriko bizi-kalitatea hobetzea lortzen da. Lehen urrats gisa, Sabandon instalatu nahi zenaren antzeko beste ekimen bat ezagutzen saiatu ziren.

2012an jarri zen martxan Sabandoko biomasa-instalazioa. Aipatu behar da instalazioan egiten diren lanak herriko bizilagunek borondatez egiten dituztela, eta funtzionamendurako eta ezpal bihurtzeko behar den egurra mozteko kanpoko zerbitzuak baino ez direla kontratatzen.

Egitasmoaren hurrengo helburua energia aldetik burujabeak izatea da; alde horretatik, ezpaleen biltegi-tako estalkietan plaka fotovoltaikoak instalatzeko interesa dago.

Zailtasunak

Egitasmoa abian jartzerakoan zailtasunik handiena diru-laguntzak lortzea izan zen. Izan ere, duela bederatzita urte ez zegoen gaur egun aurki daitekeen babesik. Azkenik, IDAEn kreditu bat jaso zen inbertsio osoarentzat, eta Leader programaren % 65eko laguntza.

Irakaspenak

Biomasa-plantari esker proiektu komun baten inguruan auzokide guztien batasuna lortu dela aldarrikatu behar da. Izan ere, iraganean bizilagun bakoitzak banaka kudeatzen zuen etxebizitza bakoitzeko ur beroaren eta berokuntza hornidura.

Era berean, instalazioak zaintzeko eta mantentzeko, ezpala lehortzeko, galdarak garbitzeko eta abarrerako eskuratutako ezagutza guztiak aipatu behar dira.

Inpaktuak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoa, soziala)

Etxebizitzak biomasa-instalazioaren bidez ur berokuntza hornitu ahal izatearen helburua udalerriko biztanle-kopuruari eustea da. Ildo horretan, biomasa-instalazioak garrantzi handia hartzen du adineko bizilagunek okupaturako etxebizitzaren kasuan. Landa-ingurunera biztanle berriak erakartzeko ere erakargarria izan daiteke; izan ere, berokuntzako ur beroaren kostua merkatzea lortzen da eta baso-ondarea hobeto kontserbatu eta hobetzen da. Horregatik guztiatik, biztanle-kopurua mantentzen laguntzen du eta tokiko demografiari positiboki eragiten dio.

Hau honela, proiektu komun bat den heinean, herritarren arteko konfiantza harremanak sortzen lagundu du. Izan ere, biomasa-plantaren inguruan herritar guztiek elkarlanean aritzen dira.

Esan bezala, etxebizitza guztiak biomasa-plantaren bidez hornitzen dira eta herrian jada ez dago gas-galdararik. Alde horretatik, proiektu honek basoa garbi mantentzen laguntzen du eta suteei aurre egin diezaieketen baso osasuntsuak sortzen ditu.

Modu zuzenean ez bada ere egitasmo honek eragin ekonomikoa dauka. Izan ere, egurra mozteko eta ezpala egiteko langileak kontratatzen dira.

Jasotako laguntzak

Egitasmo honek bi laguntza ekonomiko jaso ditu. Alde batetik, Leader programak emandako laguntza, eta bestetik, Arabako Foru Aldundiak emandako beste bat.

Kooperazio sareak

Lankidetzaren sareak sortu dira beste herri batzuetako bizilagunekin Sabandon izan zuten interes bera dutelako, hau da, biomasa-planta bat euren herrietan sortzea.

EMASP KOOPERATIBA. Energia erkidegoak



Izena	Energia erkidegoak
Sustatzaileak	EMASP Soc. Coop.
Kokapena	Kooperatibaren egoitza Iruñean dago. Komunitate Energetikoak Araban eta Nafarroan aurkitzen dira, nagusiki.
Jarduera mota	Energia berriztagarriak
Forma juridikoa	Kooperatiba
Kontakturako datuak	info@comunidadesenergeticas.org ; tlf. 948 221 501; https://comunidadesenergeticas.org
Jardueraren hasiera	2019

Deskribapena

EMASP % 100 berriztagarria den energia elektrikoaz (eguzkikoa, hidraulikoa, eolikoa eta biomasa) hornitzeko kooperatiba bat da, eta Nafarroan du jatorria. EMASP tokiko energia-komunitateak bultzatzen ari da, klima-aldaketaren erronkei erantzuteko tresna egoki gisa, eta, aldi berean, enpresa sozial eta kooperatiboaren eredu bat garatzen ari da. Esparza de Galarren sortu zen lehen komunitate energetikoa, Nafarroan, 2019an. Eta Araban, Lasierrako komunitatea 2020ko abenduan hasi zen energia sortzen eta autokontsumitzen.

Komunitate energetiko bat sortzeko prozesua herri, auzo edo eremu batean talde traktore bat sortzen denena hasten da. Ondoren, datuak biltzeko eta sorkuntza fotovoltaikoko orduetan kontsumoak aztertzeko prozesu bat hasten da, eta instalazioa prototipatzen da. Prototipoei dagokienez, Energia Komunitateko kide izatea erabakitzen duten pertsona, erakunde eta enpresa txiki eta ertainekin prestakuntza- eta diseinu-tailerrak hasten dira, eta, aldi berean, instalazioaren behin betiko ingeniari-tza-proiektua egiten da. Oinarri horien gainean eratzen da formalki eta legez Energia-komunitatea. Proiektua gauzatu, sarearekin konektatu eta autokontsumoari ekiten zaio.

Gaur egun hogeita bi energia-komunitate daude Araban, eta beste hogeitaz Nafarroan. Aipatu behar da autokontsumo-fasera igaroko diren Arabako erkidegoek megawatio inguru sortuko dituztela. Proiektu horretatik, halaber, laguntza teknikoa ematen eta bultzatzen ari dira Espainiako hainbat energia-komunitateri.

Aipatu behar da komunitate energetiko horietako kideen elektrizitatearen faktura globalaren batez besteko aurrezpena % 55ekoa izaten ari dela. Halaber, adierazi behar dugu hasierako inbertsioa, oro

har, 1.000 €-koa dela Kwp bakoitzeko, eta hori alda daitekeela, energia-komunitatearen ereduaren eta dimentsioaren arabera.

Ekimen honek etorkizunera begira dituen helburuak komunitate energetikoen figura zabaltzera eta atmosferara hiru mila tona CO₂ isurketa saihestea dira. Horrela, ekonomia deskarbonizatzen laguntzen da eta, aldi berean, pertsonen energia-gastua murrizten da.

Zailtasunak

Ekimen honek izan duen zailtasunik handiena energia banatzaileekin egin beharreko izapideak egitean sortu zen, hainbat eragozpen jarri baitzuten.

Horrez gain, pandemian sortutako zailtasunak ere aipatu behar ditugu. Denbora horretan, ezinezkoa izan da pertsonekin zuzeneko harremana izatea, eta, horren ondorioz, bilera asko, informatiboak zein parte-hartzaileak, telematikoki egin behar izan dira. Zailtasun horiek konpontzeko, Internet bidezko prestakuntza-sistema bat jarri dute abian: [https://academy.emasp.org /](https://academy.emasp.org/).

Irakaskuntzak

Positiboki baloratu behar da kontzejuetan eta auzo-komunitateetan parte hartzen duten pertsonen ahalduntzea, bai eta gizarte-harreman berriak eraikitzeko orduan sortu den komunitate-sentimendua ere. Aipatu behar da ekimen sozial solidario berriak sortu direla komunitate energetikoetan bertan, fakturazioan aurrezkiaren zati bat helburu horietara bideratzen baitute. Azkenik, kontsumo-ohitura jasangarriagoetan trebatzeko beharra sortu da.

Eraginak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoak, sozialak)

Komunitate energetikoen parte hartzen duten pertsonen ahalduntzeari laguntzen diote. Komunitate-jarduera berri bat sortzeak auzo-harreman berriak eta auzolanean lan egitea dakar. Ekimen horien inguruan, ingurumen-helburuak eta helburu solidarioak dituzten jarduerak sortu dira pobrezia energetikoaren aurrean.

Gainera, ekimen horrek bestelako jarduera ekonomikoak sortzen ditu zeharka. Alde batetik, plaka fotovoltaikoak instalatzea eta horiek mantentzea lan-karga handia da inguruko enpresentzat. Bestalde, kostu elektrikoa merkatzeak laguntza handia ematen dio ETE eta autonomoen eremuko merkataritza-jarduerari.

Energia-komunitateek ingurumen-inpaktu positiboa eragiten dute zuzenean. Ildo horretan, Arabako komunitate energetikoen atmosferara 900 tona CO₂ inguru isurtzea saihestuko dute; gainera, 2.578 miligramo hondakin erradioaktibo isurtzeari utziko zaio.

Jasotako laguntzak

Ekimen horrek Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jaso ditu Energiaren Euskal Erakundearen bidez, europako Leader programari dagozkionak, eta Arabako Foru Aldundiaren eta Nafarroako Gobernuaren laguntzak ere jaso ditu.

Lankidetzaren sareak

Ekimen horrek lankidetzaren sareak garatu ditu beste kooperatiba elkartekide batzuekin, hala nola Unión Renovables Españiar estatuan eta RESCOOPekin Europan. Gainera, Europako Comets Programako eta EnergyCities programako ikerketa-talde nazional bateko kide dira.

2.5. Etxebizitzaren arazoari irtenbideak

EGIA AHOLKULARITZA. Baserri hutsak



Izena	Egia aholkularitza. Baserri hutsak
Sustatzaileak	Egia Udal-aholkularitza
Kokapena	Orendain eta Albiztur, Tolosaldea, Gipuzkoa
Jarduera mota	Baserri hutsen eraberritzea
Forma juridikoa	Autonomoa
Kontakturako datuak	Gorka Egia. gorka@egia.eus Tel.: 688 694 048
Jardueraren hasiera	2013

Deskribapena

Egia aholkularitzak landa eremuko udalerriei aholkularitza eskaintzen die. Bere zerbitzuen artean, baserri hutsen eraberritzean jarduten du. Egitasmoaren helburua herri txikietan hutsik dauden baserrietara biztanle berriak erakartzea da. Esate baterako, Orendaingo kale-baserriaren proiektua eta Albizturgo apaiz etxeko esperientzietan, udalak lurzorua eraberritzearen truke espazio berri bat jasotzen du. Hau da, Orendaingo kasuan bost etxebizitza eraiki ziren, lehen baserri bat zegoen tokian, eta, hauetako bat udalak jaso zuen. Albizturgo esperientzian, beheko solairuan herriko haur eskola eta elizarentzako lokal bat eraikiko dituzte eta gainerako bi pisuetan lau etxebizitza sortu dira, eta hauetako bat elizaren eskuetan geratuko da.

Eraberritzearen kostu guztia etxebizitzak eskuratuko dituztenak hartzen dute beren gain. Haiek etxebizitza merkeago bat eskuratzen dute, eta trukean, baserri hutsaren jabeak (udala edo eliza, kasu hauetan), etxebizitza bat edo eraikinaren zati bat eskuratzen du.

Etorkizunari begira, jabetza pribatuko eraikinetan udalaren eskuhartzea bultzatzeko asmoa dago. Hau honela, udal administrazioak rol sustatzailea har dezan bultzaraziko da.

Zailtasunak

Horrelako proiektu bat aurrera eramaterako orduan, kontuan hartu behar da, etxe baten truke eraikin oso bat eraberritu behar dela. Hasierako arazoa jabetzaren inguruan sortzen da, izan ere, jatorrizko jabeak eraikinaren jabetza konpartitu beharko duelako.

Baita ere, aipatzekoa da, prozedura administratiboa tratatu ez dadin udalak jarraitu beharreko pautak ondo zehaztu behar direla. Zentzu honetan, zailtasun administratiboak azpimarratu behar dira, esate baterako, jabetza publiko bat esku pribatuetara pasatzeko orduan aurki daitezkeenak. Honek guztiak prozedura zaildu eta luzatzen du.

Irakaspenak

Irakaspen nagusia izan da proiektuak aurrera egiteko, berrituko den etxean biziko direnak lotuta izatea, eta baldintza jartzea herrian erroldatu eta herrian biziko direla. Irakaspen hori garrantzitsua da eta horrela bermatzen da etxebizitzak ez direla asteburuko etxe bilakatuko.

Inpaktuak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoa, soziala)

Egitasmo honek eragin zuzena dauka landa eremuko demografian, izan ere, proiektua aurrera eramateko eta hau gauzatzeko alde aurretik jartzen den baldintza beste etxebizitzarik ez izatea eta herrian bizitzeko asmoa izatea da. Beraz, proiektuak herritar berriak erakartzen ditu.

Proiektuaren arabera, egitasmoak modu batean edo bestean eragin dezake bizitza sozialean. Adibidez, Albizturgo kasuan eraberrituko den etxean haur eskola kokatuko denez, esan daiteke, nabarmen eragiten duela bizitza sozialean.

Eta, Orendaingo proiektuaren kasuan, eraikinak jasangarritasun irizpideak beteko ditu; hala nola, pelet sistema erabiliko da.


Jasotako laguntzak

Orendaingo Kale baserrira bizitzera joan zirenak EREIN diru laguntza eskuratu zuten (25.000 euro etxebizitza bakoitzak)

Kooperazio sareak

Egia aholkularitzak proiektuak garatu dituen herrietako udal administrazioekin lankidetzatza garatzen du.

ADD HOME STAGING



Izena	Add Home Staging
Sustatzaileak	Leyre Carlos Ochoa
Kokapena	Allo, Lizarraldea, Nafarroa
Jarduera mota	Barne diseinua
Forma juridikoa	Autonomoa
Kontakturako datuak	info@addhomestaging.es ; tlf. 647705105
Jardueraren hasiera	2021

Deskribapena

Add Home Staging etxe barruko diseinurako proiektu bat da, landa-eremuan kokatutako etxebizitza hutsei zuzendua, eta egokitzapenaren bidez erakargarri bihurtu nahi ditu balizko erosleen begietara.

Egitasmoaren sustatzaileak Home Staging-en (HS) formakuntza jaso zuen, eta ondoren 2020an proiektu berri honi ekitea erabaki zuten, Add Home Staging 2021eko maiatzean hasi zuen bere ibilbidea ekintzailtza-lehiaketa⁸ batean sari bat jaso ondoren.

Behin egitasmoa formalki sortu ondoren proiektua ezagutarazteko ahaleginak egin dituzte. Bezero talde bat sendotzearekin batera merkatu-hobi bat eskuratzeko asmoa daukate. Hori dela eta, Home Staging-en 15 proiektu garatu nahi dituzte, eta identifikatutako bazkide estrategikoen kopurua handitu, baita ere, hornitzaileen eta gremioena. Ildo horretan, Nafarroan HS-aren errereferente bihurtu nahi dute.

Proiektuaren hasierako inbertsioa 2.000€-koa izan zen, publizitaterako, web-orria eta lanerako materiala sortzeko eta dekorazioarako altzariak erosteko erabili ziren.

⁸ Comunal lehiaketa bat da, eta ekimen berritzaileen diseinua eta ezarpena sustatzea du helburu, landa-ingurunean gizarte-ekintzailtza jasagarria bultzatzeko. Halaber, proiektuak sortzea, beren burua ezagutaraztea, ingurumena errespetatzen duten ekonomietan oinarritutako enpresa eta startup berriak sortzeko beharra agerian uztea, etab.

Zailtasunak

Proiektu honek izan duen lehen zailtasuna egitasmoa ezagutaraztea izan da. Ildo horretan, bezeroak erakartzea erronka handia da, eta, horregatik, sare sozialak eraginkortasunez kudeatzen ikasi behar izateak zailtasun erantsi bat ekarri du. Aipatzekoa da, halaber, kontabilitate-lanak eta kontratu berrien eta dagozkion aseguruaren kudeaketa oztopo izan direla.

Pandemiaren ondorioek eta arrazoi pertsonalek proiektu hau martxan jartzea denboran atzeratzea eragin zuten.

Irakaspenak

Web orria sortzea Add Home Staging ekimenak lortu duen lorpen garrantzitsuenetako bat izan da, baita ere, ekimen honek garatzen duen lanean konfiantza izan zuen lehen bezeroa oso une garrantzitsua izan zen.

Inpaktuak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoa, soziala)

Ekimen honek landa-eremuko higiezinaren zorroa dinamizatzen eta ikusarazten laguntzen du. Herrietan, etxebizitza ugari itxita daude, baina bizitzeko egoera onean aurkitzen dira. Add Home Staging ahalmen hori guztia zukutzen ahalegintzen da, eta, horrela, erakargarri bihurtzen ditu etorkizuneko erosleen begietara. Beraz, proiektu honek apustu garbia egiten du landa-eremuko biztanle kopurua mantentzearen eta handitzearen alde.

Landa-inguruko proiektu berritzailea denez, nolabaiteko ikusmina sortu du, eta, ondorioz, herrietan bizi diren pertsonen interesa agertu dute. Horrela, nolabaiteko inpaktu soziala sortu du.

Ingurumen esparruari begira, ekimen honek etxebizitzetan dauden higiezinak berrerabiltzen saiatzen da, kontsumo neurrigabea saihestuz. Horretarako, erabiliko ez duten guztia bildu eta birziklatzen dute Emauseko Traperoak fundazioarekin batera.

Proiektu honen azken helburua etxebizitzak saltzea edo alokatzea da; beraz, inpaktu ekonomikoa eragiten du. Gainera, proiektua garatzeko, pintura, elektrizitate eta iturgintza lanak egin behar dira, eta, oro har, inguruko enpresen esku dago lan karga hori.

Jasotako laguntzak

Ekimen honek 2.500 euroko laguntza jaso du, emakumeen enplegua sustatzeko eta sortzeko Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen Europako funtsei dagokiena.

Kooperazio sareak

Aipatu dugun bezala, Add Hone Staging ekimenak Comunal lehiaketan irabazitako sariaren esparruan jasotako babesari esker hasi zuen bere ibilbidea, eta, hain zuzen ere, zirkulu horretan bertan garatu ahal izan ditu lankidetzak sareak beste hainbat ekimenekin. Emauseko Traperoak fundazioarekin ere lan egiten dute altzariak berrerabiltzeko.

OZAETAKO ALOKAIRUKO ETXEBIZITZAK



Izena	Ozaetako alokairuko etxebizitzak
Sustatzaileak	Ozaetako kontzejua
Kokapena	Ozaeta, Barrundia, Arabako lautadako kuadrila
Jarduera mota	Alokairurako etxebizitzak
Forma juridikoa	Entitate publikoa
Kontakturako datuak	Ozaetako kontzejua
Jardueraren hasiera	2021

Deskribapena

Ozaetan alokatzen diren etxebizitzak kontzejuko bilera gela aurkitzen den eraikin berean daude; eta, guztira hiru dira alokairuko etxebizitzak.

Alokairurako hiru etxebizitza horiek sortzeko ideia Ozaetako administrazio batzarrak berak izan zuen. Izan ere, kontzejuak erabaki zuen eraikinaren egokitzapena egitea eta, horrela, hiru etxebizitza horiek sortzea, batzarraren bilerak hartzen dituen eraikinari beste erabilera bat emanaz.

Hasiera batean, pisu horiek enkante ekonomiko hutsaren bidez diru gehien ordaintzeko prest zegoen maizterrari alokatzen bait zitzaizkion, gaur egun, alokairua eskuratzeko, baldintza batzuk bete behar dira egiten den lehiaketan parte hartu ahal izateko.

Ildo horretan, Ozaetako administrazio batzarrak alokairuan eskaintzen dituen etxebizitza horiei begira duen helburuetako bat lehiaketa bera hobetzea da. Hau honela, lehiaketa arautzen duten irizpideak azpimarratuz eta ekimen honi izaera soziala emanaz, landa inguruneak dituen erronkekin bat, gazteei herrietan bizitzen jarrai dezaten aukera ematen zaie.

Zailtasunak

Ekimen honen sustatzaileek aurkitu dituzten zailtasun nagusiak lege esparru juridikoan daude. Kontuan hartuta Ozaetako administrazio batzarra osatzen dutenak boluntarioak direla, eta, kasu honetan, kideek ez dutela behar besteko ezagutzarik edozein erakunde publikok lizitazio publiko bat eskaintzeko jarraitu beharreko administrazio prozesuari buruz. Kontzejuarentzat erronka handia da etxebizitzak alokatzeko enkantea prestatzea. Aipatu beharra dago SARSCovid-19ak eragindako pandemiak lehiaketa ia urtebete atzeratzera behartu ziela.

Irakaskuntzak

Irakaskuntzak bat datoz aipatu diren zailtasunekin. Kontzejuak berak azpimarratu du izapidetzear laguntza gutxi jaso dela. Azkenik, lizitazioa aurrera eraman zen ALHAOn argitaratuz.

Ekimenaren balioa zenbait irizpideri garrantzia ematea izan da, alegia, herrian erroldatuta egoteari edo familia-unitatearen kopuruari alor ekonomikoari baino balio handiagoa ematea. Horrela, herriko biztanle kopuruari eustea lortzen baita.

Inpaktuak (demografikoa, ekonomikoa, ingurumenekoa, soziala)

Etxebizitzaren arloko horrelako ekimenen bidez, argi dago demografiaren alorrean eragin positiboa lortzen dela. Gainera, kontuan hartuta landa-eremuan alokairuko higiezinaren eskasia dagoela eta lehiaketa arautzen duten printzipioak zein diren ezagututa, esan daiteke, ekimen honek lagundu egiten duela gazteak landa eremuan emantzipatu ahal daitezen, alokairu eskaintza handiagoa den udalerrri handiagotara joan beharrik izan gabe.

Nahiz eta jarduera honek ez duen beste eragin zuzenik sortzen demografikotik harago, herriaren eremu sozial eta ekonomikoa osatzen du. Hau da, gazteak landa eremuan mantentzea garapenaren sinonimoa da.

Jasotako laguntzak

Ekimen honek ez du zuzeneko laguntzarik jaso, administrazio publikotik jaso ahal izan duen aholkuritza izan ezik.

Kooperazio sareak

Ez da ezer aipatu

2.6. Zerbitzuak landa eremuan

KUDEA>GO!



Izena	KUDEA>GO!
Sustatzaileak	Patxi Miranda Fernandez
Kokapena	Aizarotz, Basaburua, Ultzamaldea, Nafarroa
Jarduera mota	Mugikortasuna
Forma juridikoa	Autonomoa
Kontakturako datuak	info@kudeaservicios.com, Aizarotz, 31886, Nafarroa, 678966793
Jardueraren hasiera	2020

Deskribapena

Kudea>Go 2020an mugikortasun plataforma bat bezala sortu zen. Plataforma honek aukera ematen du landa eremuan dagoen mugikortasun-eskaintza osoa (autobusa, tokiko taxia, trena, ibilgaiuen alokairua, bizikleten alokairua, etab.) eskura izateko, eta, era berean, aukera ematen du eguneroko joan etorriak herri edo eskualde bereko pertsonekin partekatzeko, inolako transakzio ekonomikorik egin gabe.

Plataformak inpaktu positibo bat sortzea bilatzen du, landa-ingurunean gizarte-ingurumen eta kultura arazoei irtenbidea emanez. Haren jarduera nagusia landa eremurako mugikortasun positiboko plataforma digitala garatzea eta kudeatzea da.

Kudea>Go plataformaren egitasmoak 2020ko urtarriletik hona hainbat mugarri izan ditu, hala nola, diseinua eta ekoizpena, merkaturatzea eta difusioa, plataformaren probak, kontratazioak, hobekuntzak eta martxan jartzea.

Aipatu behar da proiektu honek pertsona bakar bat enplegatzen duela eta lan puntualetarako hainbat zerbitzu kontratatu dituela.

Zailtasunak

Zailtasun nagusia, plataformak eskaintzen duen zerbitzuaren “argazki zabalagorik” ez izatea izan zen. Funtzionamenduaren ideia hasieratik argia zen, baina aldaketa klimatikoaren lege berriarekin prozesu

osoa azkartu zen eta hasierako ideia hobetzeraz behartua izan zen, hala nola, zerbitzu berriak gehituz, funtzionaltasunak birdiseinatuz, iturburu-kodeetan aldaketak eginez eta, ondorioz, ekoizpena garestituz.

Bestalde, pandemiaren ondorioz, erabiltzaileen artean plataformaren erabilera baxua izan da. Izan ere, pandemiak sortutako errealitate berria autoa partekatzerako orduan kutsatzeko aukera zirela eta beldurra zabaldu zen.

Irakaspenak

Irakaskuntza guztietan handiena izan da toki-erakundeekin eta gobernuarekin uneoro lankidetzan aritu izana. Hain zuzen ere, horixe izan da plataforma Nafarroako 91 herritan zabaltzea ahalbidetu duena. Ildo horretan, ekimena hainbat kongresu eta erakusketatan aurkeztuko da. Gainera, erakunde publikoekiko lankidetzari esker, Lurralde Kohesio Sailak, Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez, eta Sakanako Garapen Agentziak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute, eremu horretan mugikortasun iraunkorra bultzatzeko eta Kudea Go proiektua abian jartzeko, eta, gizarte- eta industria-eragile gehiagorekin batera, Sakanako eskualdean mugikortasun-laborategi bat sortzeko.

Zentzu honetan, ekimena EU Green Week ekitaldien barruan Nafarroako Gobernuako Kanpo Harremanetarako Departamentuak Bruselan aurkeztuko zuen. Baita ere, LABEAN plataformaren saria jaso zuen, Añanako kuadrillan, berrikuntza sozialeko proiektu pribatu onena bezala.

Inpaktuak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoa, soziala)

Kudea>Go egitasmoak landa eremuan bizi den populazioari bizitza pertsonala aurrera eramaten laguntzen die; izan ere, zerbitzuen beharrak asetzen laguntzen du. Zentzu honetan, proiektu honek lurraldearen barruan pertsonen mugimenduak erraztearen ondorioz demografikoki eragin positibo bat dauka.

Bestetik, pertsonen mugikortasuna errazten duen heinean herrien arteko distantzien gaintik herritarrak konektatzen ditu. Hau honela, plataformak bizilagunak elkar ezagutzera laguntzen du. Eta, auzolanaren bitartez elkar laguntzen dira.

Ingurumenari begira, esan beharra dago, garraio publikoa edo kotxea konpartitzen den bitartean emisio kutxakorrak murrizten direla. Zentzu honetan, ingurumenean eragin positibo bat sortzen du.

Jasotako laguntzak

Hasiera batean, proiektuak ez du inolako laguntzarik jaso, funts propioekin sortu da.

Kooperazio sareak

Kudea>Go, Dinabide⁹ eta Sakanako Garapen Agentzia elkarlanean ari dira gaur egun Sakanako eskualdeko mugikortasun-proiektu pilotu batean, Lurralde Kohesio Sailaren laguntzarekin, Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez. Nafarroako AIN Industria Elkartarekin ere lan egiten du, Nafarroako Ekonomia Zirkularreko Erakundearen Katalogoan parte hartuz. Katalogo horrek ekonomia zirkularra bultzatzen duten eta nazioarteko lankidetzaz bilatzen duten Nafarroako enpresen adibideak biltzen ditu.

⁹ Dinabide Nafarroan eraldaketa digitala bultzatzeko lankidetzaz espazio bat da, Irurtzunen kokatua

TEKNOADINEKO LANDALAB



Izena	Teknoadineko Landalab
Sustatzaileak	Agintzari GEK eta GISLAN Koop. Elkarte Txikia
Kokapena	Amasa-Billabona, Orduña eta Orozko udalerrietan
Jarduera mota	Landa eremuko adinekoen zaintza
Forma juridikoa	Elkarlan Publiko-pribatua
Kontakturako datuak	Unai Zabala Loizate; unaizabala@agintzari.com
Jardueraren hasiera	2017

Deskribapena

LandaLab proiektuaren helburu nagusia landa eremuko adineko pertsonen bakardade eta zaurgarritasun egoeren detekzio eta esku hartze goiztiarra egitea da. Egitasmoa bi zutabetan oinarritzen da. Alde batetik, garapen teknologikoa garatu du, aplikazio baten bidez, udalerrri bakoitzean informazio sistema bat elikatzen duena. Bestetik, herri bakoitzeko bizitza komunitarioaren araberako auzo zaintza diseinatzen da, auzo zaindarien figuraren bitartez. Honela, egitasmoak herriko komunitatea eta ardura kolektiboa aktibatzea bilatzen du.

Egitasmoaren hurrengo erronka informazio sistemaren garapena eta inplementazioa estandarizatzea da. Bestetik, esperientzia eta egitasmo ezberdinak martxan jartzea, landa eremuko udalerrri gehiagotara zabalduz. Zenbat eta aukera gehiago izan orduan eta aberatsagoak izango dira irtenbideak. Hala ere, aipatzekoa da Landalab-en garapenak bere praxia beste edozein problematika sozialetan aplikatzeko oinarri sendoa ezartzen duela.

Zailtasunak

Zailtasun nagusia proiektuaren urrats bakoitza emateko Udalen barruan interlokutore egokia topatzea izan da. Hasierako garapena antolaketa eredu eta datu konkretu batzuen gainean oinarritu da. Errealitateak erakutsi du Udal bakoitzak bere ezaugarri propioak dituela, eta garapen asko berariaz egin behar direla. Gerta daiteke, gainera, proiektua behin martxan ipinita jarraipenik ez izatea, edota jarritako auzozain taldeak ordezko edo erreleborik ez izatea.

Pandemiak proiektuaren garapen fasea hilabete batzuetan zehar eten du eta Udalekin transmisioa eta lanketa atzeratu ditu.

Irakaspenak

Adineko pertsonen gaineko informazioa kudeatzeko eta beraien zaugarritasunaren balorazioa egiteko informazio sistema bat erdietsi da. Sistema honek gainera udalerrriaren zahartzaroaren inguruko diagnostiko orokor dinamiko bat eskaintzen du, batetik, eta zaintza komunitarioa burutzeko tresna bat jartzen du herritarren eskura, bestetik. Landa guneetako gizarte errealitateari eta beharrei erantzunak bilatzeko ekimenak ezagutu, partekatu, martxan jarri eta ondorioak ateratzeko aukerak sustatu dira

Inpaktuak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoa, soziala)

Proiektua dagoeneko landa eremuan bakardade egoeran dauden adineko pertsonen zaintzara bideratuta dago. Ondorioz, ez du biztanleria aktiboan ondorio zuzenik. Dena den, ekimen honek adineko pertsonak beraien komunitatean integratuta jarraitzeko balio du.

Proiektu honen ardatz nagusia zaintza komunitarioa da. Horiek horrela, udalerrietako kapital soziala aktibatu eta hauek adineko pertsonen zaintza aktiboaren parte bilakatzen ditu. Horren ondorioz, komunitatea saretzea lortzen da.

Proiektu honek ez du tokiko ekonomian inpaktu zuzenik. Zeharka, ordea, adineko pertsonen zaintzara bideratutako zerbitzuak indartzeko baliagarria da.

Jasotako laguntzak

Egitasmo honek Etorbizuna Eraikiz programaren laguntza jaso du (Gipuzkoako Foru Aldundia), Fundación La Caixakoa eta POCTEFA dirulaguntza bat ere.

Kooperazio sareak

Aipagarri da egitasmoa POCTEFA Europar egitasmoaren BERTAN proiektuko partaide dela. Egitasmo horretan partaide dira Sakanako Garapen Agentzia eta Euskal Hirigune Elkargoa, beste udalerrri batzuekin batera.

MALERREKA COMMON ZERBITZUAK



Izena	Malerreka Common Zerbitzuak
Sustatzaileak	Patxi Urroz eta Arrosatxo Ibarra
Kokapena	Elgorriaga, Malerreka, Nafarroa
Jarduera mota	Gizarteratzea eta laneratzea
Forma juridikoa	Kooperatiba elkarte txikia
Kontakturako datuak	Erreroa etxea, 689706002- 676539530, arrosatxoibarra@gmail.com
Jardueraren hasiera	2020

Deskribapena

Malerreka Common Zerbitzuak 2020. urtean sortutako kooperatiba bat da. Bere asmoa eskualdean gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonei gizarteratzen eta laneratzen laguntzea da. Patxi eta Arrosatxo, existitzen zen behar honetaz jabetu ziren, eta, pasa den urtean Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioz suertatutako itxialdian egitasmoa aurrera eramateko bideragarritasun plana findu zuten. Hau honela, 2020ko apirilean lehenengo kontratazioak egin zituzten.

Kooperatiba honek landa inguruetik lan egiten du, eta, udalentsako, erakunde publiko eta pribatuentzako zein partikularrentzako zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu. Hala nola, lorezaintza edota etxeak hustu eta garbiketa lanak, sastrakak kentzeko eta garbitzeko lanak, ureztatzeko kontrola, hiri-altzarien instalazioa, garbiketa eta mantentze lanak, etab. egiten dituzte. Hortik haratago, ekonomia, gizarte eta ingurumen jasangarriak lortzeko bidean ekonomia zirkularraren inguruan nekazaritza eta produkzio ekologikoaren inguruko proiektuak martxan jarri nahi dituzte. Zentzu honetan, MC zerbitzuko lan ildoak baratze sozialak eta elikagaiak eraldatzeko guneak, sukaldaritza soziala eta komunitarioa, ardi latxaren artilea biltzea, gaiztainondoak berreskuratzea eta beste hondakin batzuen bilketa, tratamendua eta balorizazioa dira.

Zailtasunak

Laneratze enpresa baten eguneroko zailtasunez gain, mikrokooperatiba bat sortzeko prozesuak eta laneratze enpresa gisa kalifikatzeko prozedurak lan eta ahalegin handia ekarri dute denbora eta prozedura administratiboen aldetik.

Bestalde, arrazoi sozialengatik kontratuen erreserba aplikatzea ez da administrazioetan oraindik erabat barneratutako praktika bat.

Irakaspenak

Mikrokooperatiban lan egin duten testigantzen arabera, balorazioa oso positiboa da. Gizarteratze enpresa denez, enplegatzen direnak ez dute formakuntza handirik eta lan prekarietatea bizi izan dute. MC zerbitzuak kooperatiban lan eginez, gutxienez 6 hilabetez eta gehienez 3 urtez lan egin dezakete, lanbide bat ikasi eta, batez ere, osasun mentalari eutsi. Azken hau da gehien baloratzen dutena, lanean diharduten bitartean ongizatea hobetzen dela eta lasaiago egotea lortzen dutela.

Aipagarria da ere ezohiko egoera baten aurrean zenbait udalekin lortutako elkarlan harremana. Zentzu honetan, udalek hainbat lan eman dizkiete. Pertsona partikularrekin lanean hasi direnean ere harrera ona izan dute.

Inpaktuak (demografikoak, ekonomikoak, ingurumenekoa, soziala)

MC zerbitzuak eskualdeko ekonomian inpaktu zuzena dauka, izan ere, lan postu berriak sortu ditu, eta, egiten dituzten lan ezberdinei esker hainbat lagun enplegatzen ditu. Hau honela, enplegatzen dituen pertsonak bertan bizi diren heinean demografikoki ere eragin positiboa du.

Egitasmo honek daukan inpaktu soziala berebiziko garrantzia dauka, izan ere, langabetuta dauden pertsonak edota lanaldi partzialak edo prekarioak dauzkaten pertsonen lan arloan ziurtasuna ematen die.

Nahiz eta, gaur egun, ingurumenean ez duten eragin handirik, etorkizunean ekonomian zirkularrean oinarritutako nekazaritza eta produkzio ekologikoan oinarritutako proiektuak aurrera eramanez nahi dituzte.

Jasotako laguntzak

Enpresa sortzeagatik eta egin ditugun inbertsioengatik laguntzak jaso ditugu. Bertzaldetik, hilabetero jasotzen dugu Nafarroako Gobernuaren EOSen diru-laguntza, langileak kontratatzen laguntzeko.

Kooperazio sareak

Beste landa enpresa batzuekin kooperatzen du, baita ere, udal eta toki-erakundeekin.

3. Europako esperientziak

Iparraldeko herrialdeetako landa-erakargarritasuna



Oinarrizko datuak

Lurraldea	Iparraldeko herrialdeak: Norvegia, Suedia, Finlandia, Islandia, Groenlandia, Faroe Irlak eta Aland Irlak
Erakunde sustatzailea	Nordregio (Eskandinaviako ikerketa insitutua)
Informazio gehiago	https://nordregioprojects.org/rural-attractiveness-cases/

Proiektu honek Eskandinaviako herrialdeetako landa-eremuei buruzko 14 kontakizun labur biltzen ditu, erakargarritzat katalogatuak, eremu horietan azken urteotan biztanleria eta enplegua handitu egin baitira.

Azken 10 urteetako demografia- eta enplegu-datuak Eskandinaviako landa-eremuetan aztertuz gero, aldaketa nabarmenak ikus ditzakegu etorkinen sarrera-irteerei eta enpleguaren tokiko ondorioei dagokienez. Tradizioz, pertsonen enpleguei jarraitzen dietela izan da ikuspegia. Baina enpleguek ere jarraitzen diete pertsonen.

Azken hamarkadetan, Eskandinaviako herrialdeetan, oparotasuna handitzea, aisialdia luzatzea, lan- eta etxebizitza-egiturak aldatzea, digitalizazioa, aire zabaleko eta aisialdiko jarduerak eskura izatea, etxebizitzaren prezioak jaistea eta tokiko komunitatearen bizitzan parte hartzeko nahia migrazioan aldaketa eragin dezaketen faktoreak dira. *Rural attractiveness in Northern* proiektuaren bidez jakin nahi da jendeak zergatik erabakitzen duen inguruko landa-eremuak (biztanle gutxi dituztenak/urrunak eta hirikoak) uztea, zergatik lekualdatzen diren eta zergatik geratu diren han beti.

Orkney irlak: Energia berriztagarrietan espezializazioa



Oinarrizko datuak

Lurraldea	Orkney (islas Orkney, Eskozia)
Erakunde sustatzailea	Eskoziako komunitate energetikoa
Informazio gehiago	https://www.communityenergyscotland.org.uk/projects-innovations/heat-smart-orkney/

Orkney aitzindari da mundu osoan energia berriztagarrien garapenean. Atlantikoaren eta Ipar Itsasoaren artean kokatua, Orkneyk Europako ur energetikoenetako batzuk, haize indartsuenetako batzuk eta uharteen potentziala besoak zabalik aprobetxatu duen komunitate bat ditu. 2019an RESponsible Island Prize Europako Batzordeak emandako sarietako bat irabazi zuten.


Orkneyn energia berriztagarrien garapena 1950eko hamarkadatik dator, sarera konektatutako lehen turbina eolikoa sortu zuenean. Gaur egun, konderrian 500 etxeko turbina inguru daude, Erresuma Batuko beste edozein konderrik baino gehiago, baita eskala handiagoko zenbait parke eoliko eta jabego komunitarioko turbinak ere. Orkneyk bere elektrizitatea ekoizten duten Erresuma Batuko etxeen proportzio handiena du, eta energia-sistema deszentralizatueta aitzindaritzat hartzen da.

Orkneyko iraultza energetikoa komunitatetik zuzendu, inspiratu eta babestu da, eta etapa bakoitzean parte hartzea eragin du. Orkneyn 300 enplegu baino gehiago daude energia berriztagarriekin lotuta; 700 energia-sortzaile indibidual eta teknologian inbertsoreak ditu; eta eskala handiko 12 aerosorgailu eta energia garbia eta tokiko diru-sarrerak ematen dituzten mikro-aerosorgailu komunitario ugari.

Orkneyren ezagutzaren ekonomia deiturikoak energia berriztagarrien sektorean hedatzen jarraitzen du. Edinburgoko Heriot Watt Unibertsitateak, Orkneyko Ikerketa eta Berrikuntza Campus berria (Oric) egoitza duenak, campusa du Stromnessen. Campusa ikerketa aurreratuan, graduondoko prestakuntzan eta itsas energian eta lotutako alorretan espezializatzen da. Oric bezalako garapenek irla berde eta garbi horietan energia berriztagarrien sektorearekiko konfiantza islatzen dute.

Berritzailea, ekintzailea eta etorkizun iraunkorraren zale amorratua da Orkney, eta energia berriztagarrien aldeko apustuaren buru izateaz harro dago.

Ludgate Hub: estrategia digitala Irlandako landa eremuarentzat



Oinarrizko datuak

Lurraldea	Skibbereen, West Cork, Irlanda
Entitate sustatzailea	Ludgate Hub (Erakunde publiko-pribatua)
Informazio gehiago	https://www.ludgate.ie/

Ludgate erakunde publiko-pribatua da, eta Irlandako gobernuaren "Our rural future policy" bultzatzeko konpromisoa hartu du. Estrategia hori datozen 5 urteetan COVID-19aren ondorengo Irlandako landa-eremuak berreskuratu eta garatzeko. Landa-eremuetan bizi diren pertsonen bizi-kalitatea eta aukerak eraldatzeko ikuspegia lortzeko esparrua eskaintzen du.

Irlandako landa eremuak erronka askori egin behar izan dio aurre azken hamarkadetan, industria tradizionalen gainbeheraren, gazteen emigrazioari lotutako lanpostuen galeraren eta garraio eta azpiegitura digitalaren konektibitate eskasaren ondorioz.

Ludgate Hub 2016an sortu zuten bi enpresek. West Corken (Skibbereen) bihotzean dagoen zentro digital bat da. Banaka lan egiten duten profesionalei eta enpresa korporatiboek zuzenduta dago, eta Irlandaren zati eder batean harremanak sortzeko, hedatzeko eta negozioak eskalatzeko espazio bat eskaintzen du.

Horretarako, honako ildo hauek lantzen ditu:

1. Konektagarritasun digitaleko instalazioak eskaintzea, landa- eta hiri-eremuen arteko eten digitala itxiz, eskolak teknologiarekin eta ikaskuntza-plataformekin hornituz, gazteei STEM trebetasunak garatzeko.
2. Landa-eremuetan enplegua eta lanbide-heziketa sustatzea, enplegu-aukeren publikitatea eginez eta enplegu-eskatzailearen eta enplegu-emailearen arteko zubi gisa jardunez.
3. West Cork barruko konektibitate-zerbitzuak hobetzea, langileei urrutitik lan egiteko eta bertan bizitzeko aukera ematen baitie, konektagarritasun-arazorik gabe, eta eraginkortasunez jarduteko behar duten ekipoa.
4. West Cork komunitateari laguntzea klimatikoki neutrala den gizarte baterako trantsizioan, informazio-ekitaldiak zabalduz.

Sopotniki: Adineko pertsonen bidelagunak



Oinarrizko datuak

Lurraldea	Hyrpelje-Kozina, Divača, Sežana, Sevnica, Brežice, Postojna, Krško y Kočevje (Eslovenia)
Entitate sustatzailea	Sopotniki irazabi asmorik gabeko elkartea
Informazio gehiago	https://www.sopotniki.org/about-us.html

Sopotniki belaunaldien arteko elkartasun erakunde bat da, zaharrei bizitza sozial aktiboan parte hartzen laguntzeko sortua. Adin eta lanbide ezberdinetako gidari boluntarioek osatzen dute, beren lan eta ikasketa betebeharrak egokitu dituzte eta astean sei egunetan zerbitzua bermatzen dute. Belaunaldien arteko elkartasunaren bidez, urruneko herri txikietako adinekoen isolamendu eta bakardade egoera saihesten dute; izan ere, urruntasunagatik, garraio bidez ezagatik edo konexio txarregatik ia inoiz ez dira euren herrietatik ateratzen.

Sopotnikik doako garraio zerbitzua eskaintzen du, adinekoei kultur ekitaldietara joateko, lagunak bisitatzeko, medikuarengana joateko, erosketak egitera joateko eta abarretarako aukera ematen diena. Horrela, egin beharrak modu independentean eta kezkarik gabe egin ditzakete, baita lagun berriak egin eta harreman sozialak garatu.

Esloveniako Hyrpelje-Kozina, Divača, Sežana, Sevnica, Brežice, Postojna, Krško y Kočevje herrien arteko bidaiak egiten dituzte, baina, bidaiariaren batek eskatzen badu beste leku batzuetara ere eman dezakete.

Sopotnikik ikuspegi berritzailea eskaintzen dio landa-eremuetan bizi diren helduen mugikortasunari.

Auto elektriko komunitarioa Villerouge-Termenesen



Oinarrizko datuak

Lurraldea	Villerouge-Termenès (Languedoc-Roussillon, Frantzia)
Erakunde sustatzailea	Villerouge-Termenès-ko Udala
Informazio gehiago	https://accessr.eu/en/projets/shared-vehicle-in-villerouge-termen/

Villerouge-Termenès 140 biztanleko herri txiki bat da Corbièresko Parke Naturalean, biztanleria-dentsitate txikiko eta zerbitzu publikorik gabeko eremu batean. Hurbilen duen okindegia 10 km-ra dago. Biztanleriaren zati batek mugitzeko zailtasunak ditu, adinekoak edo baliabide gutxiko gazteak direlako.

Egoera horren aurrean, Udalak bizilagunei proposatu zien ibilgailu elektriko komunitario bat erostea, herritarren mugikortasuna eta zerbitzuetarako sarbidea hobetzeko. Ekimena bertako bizilagunekin batera garatu zen, eta hori funtsezkoa izan zen proiektu honek arrakasta izan zezan. Udal-ordezkariek laguntza finantzarioa bilatu zuten: FEADERen laguntzaren bidez autoan egindako inbertsio kostuaren %63ko finantzatu zuten baita hiru urteko kostu operatiboa; tokiko eta eskualdeko gobernauk %15 finantzatu zuten; eta gainerako kostuak udalak finantzatu zituen. Aurrekontu osoa 46.355 eurokoa zen.

Lorpenen artean, nagusia izan da herritarrei garraiobide ekologiko bat eskaintzea, sozialki merkea, 40 km-tik 80 km-ra bitarteko bidaia laburretarako. Gainera, erabilera partekatuak estutu egin ditu biztanleen arteko gizarte-harremanak, bai eta turistekiko harremanak ere, horiei ere eskaintzen baitzaie zerbitzua ordu-tarte erabilgarrietan.

Azkenik, ibilgailuak GPSa du, ibilbide iradokiak eta inguruko ostatu, zerbitzu eta artisauei buruzko informazioa dituen. Ekimen horrek Ploeuc-L'Hermitage-n antzeko beste bat inspiratu zuen, Frantziako Bretainia Eskualdeko hiri txiki bat. Bertan, hiru auto elektriko partekatzen dituzte. 2019an Villerouge-Termenès bisitatu ondoren sustatu zuen ekimena alkateak.

Etorkizunari begira, mugikortasun garbi eta isilaren inguruan elkarte bat eraiki daitekeela planteatu da, Corbières Eskualdeko Parke Naturalaren perimetroan beste leku garrantzitsu asko baitaude.

4. Ondorioak

Hona ekarri ditugun proiektuak ez dira Araban edo landa eremuetan egin diren bakarrak. Gure iritzian Araban edo Arabarentzat une honetan erreferentzialak direnak baizik. Katalogazio hau bera orain bi hamarkada egin izan bagenu proiektuak bestelakoak lirateke. Eta hamarkada bat barrukoak ere bestelakoak izango dira segur aski. Egitasmo horien izaera, beraz, landa-errealitate aldakor baten egungo uneari zor zaio, zuntz optikoaren etorrerarekin eta energia-ereduaren aldaketaren bizkortzearekin, ziur asko iraultza sozioekonomiko handienari (edo azkarrenari) aurre egin beharko diona.

Beraz, hona ekarri ditugun egitasmoak erreferentzialtzat hartuz gero, komenigarria da esperientzia hauen gaineko ondorio orokor batzuk azaleratzea une honetan landa garapeneko egitasmoen eremuko jarduera berritzaileak nolakoak eta nola garatzen ari diren ezagutzeko.

Konpromiso bikoitza duten egitasmoak dira gehienak. Alegia, sustatzaileek badute proiektuaren oinarri diziplinarrarekin lotura indartsu bat eta beste aldetik egitasmo hori landa eremu batean garatzeko konpromisoa adierazten dute. Esan daiteke gustoko jarduera bat gustoko lekuan egiteko xedea uztartuta datorrela.

Sustatzaile gehienak badute lotura edo oinarri diziplinar garrantzitsua. Ekintzaile gehienak esperientziadunak dira, izan familiaren tradizioa jaso dutelako edo ibilbide profesionala egina dutelako. Beraz, esan daiteke sustatzaile formatuak direla, beharbada ez enpresa garapenean, baina bai bere arlo profesionalan. Esaten ari gara sustatzaile gehienak formazio maila eta maila kultural jasoa duen jendea dela. Ondorioz, gehienak adinez ere ohiko ekintzaileen ezaugarrietara hurbiltzen dira, 40 urte inguruan.

Era berean, **badute landagunean bizi eta landaguneari bizitza emateko xedea.** Esan daiteke bere inguruarekin konprometitutako pertsonak direla. Konpromiso honek forma asko har ditzake, baina oro har, proiektua garatu eta mantentzeko moduari eragiten dio. Inguruarekin loturak eraikiz garatutako proiektuak dira.

Landa-eremuaren ezaugarri eskusiboa ez izan arren, **ekintzailetzaren atomizazioa**, indibidualizatzeko joera sozialetik ere aldentzen ez dena, oso egitura txikiak edo pertsona bakarrekoak dituzten proiektuetara bideratzen da, bereziki eremu pribatuko ekimenetan, eta horrek eragin negatiboa du jarraian aipatuko ditugun alderdi batzuetan.

Sustatzaile gehienek formazioa eta esperientzia izan arren, **ez dute proiektu baten lidergoan esperientzia osoa.** Hori dela eta, proiektu ekonomikoen izaera multidiziplinarra denez, zailtasunak topatzen dituzte eremu batean ez bada bestean. Zailtasun hauek kasu gehienetan ondorio ekonomikoak izan dituzte.

Esperientzia dutenen artean ere, aipatzekoa da **nekez lortzen dutela proiektua garatzeko behar duten guztia inguru hurbilean eskuratzea.** Horren aurrean modu autogestionatuan edo sareak eraikiz aurre egiten zaie zailtasunei. Sare hauek ez dute ezinbestean landaguneko eragileekin izan beharrik. Egia da, halaber, esperientzia falta autoikasketa eta autogestioarekin uztartzen denean, ikasketa porrotaren arriskuarekin oso batera joaten dela.

Egitasmo gehienak **IKTen erabilera intentsiboa** egiten dute. Egitasmoa ezagutzera emateko webgune propioa izatea, kasu batzuetan erreserbak eta on-line bidezko salmentak egiteko aukerarekin, edota sare sozialetan presentzia izatea bizirauteko baldintza bilakatu dela esan daiteke. Hori horrela,

sustatzaileek arlo horretan trebatu behar izan dutela aipatu dute. Bestalde, badira egitasmo batzuk **oinarri teknologiko handikoak, alegia,** garapen teknologikoa egitasmoaren funtsezko osagai moduan dutena proiektuaren arrakastarako.

Ugariak dira **trantsizio ekologikoari lotutako egitasmoak.** Landa eremua aproposa da trantsizio energetiko eta elikadura burujabetza proiektuak ekiteko, eta egitasmo horien sustatzaileek konpromiso argia dute norabide horretan. Ingurugiroa zaindu eta kutsadura murrizteaz haratago, egitasmo batzuk zuzenean eragin positiboak bilatzen dituzte (basoen kudeaketa jasangarria, lurrak ongarrizteko humus ekoizpena, etab.) eta beste batzuk elikagai ekologikoak ekoiztu edo merkaturatzen dituzte. Trantsizio energetikoari lotutako ekimenak zuzenki arlo honi lotuak daude. Bestelako sektoreetan jarduten dutenak kontzientzia argia dute eta neurriak hartu dituzte haien kutsadura murrizteko eta gertuko hornitzaileekin lan egiteko. Oro har, ekonomia zirkularraren kontzeptuari jarraituz, zirkularitate gradu altuko jarduerak direla esan daiteke, zeinak bideragarritasun eta iraunkortasun ekonomikoa lortu nahi dute ingurugiroarekiko konpromisoa eta gizarte-hobekuntzaren helburuak arriskuan jarri gabe.

Zailtasunen artean, proiektu bat abian jartzeak dakartzan guztiez gain, aipatzekoa da nork bere bizitza edo **jarduera nonbait kokatzeko espazio eta bizilekuak eskuratzeak zailtasun nabarmenak eragiten dituela.** Harrigarria badirudi ere, husten ari den lurralde eremua izan arren, gabezia garrantzitsua dago maila horretan. Egitasmoetako batzuk, hain justu, gabezi honi irtenbideak aurkitzeko helburuarekin sortu dira.

Bizi izan dugun garaiak ere ageriko eragina izan du, izan ere, COVID garaian garatutako egitasmo gazteak izaki, larrialdi egoerak eragindako murrizketak nozitu dituztela, **hala nola harreman eta lankidetzak berriak eraikitzeak zailtasunak.**

Administrazioak Landa Garapenean “behetik gora” sortzeko baliabide ekonomiko eta tekniko ugari eskaintzen du. Egitasmoen **artean badira bide horri jarraituz garatu direnak, eta badira, inoren aholku edo laguntzarik gabe sortu eta garatu direnak** ere, behar bital bati erantzunez.

5. Topaketak Añanan eta Maeztun

Katalogoa egin ondoren, aurreikusita zegoen bezala, elkarren segidako bi topaketa antolatu ziren Añanan eta Maeztun, katalogoaren eta bertan jasotako esperientzien berri emateko, ekimen sozio-ekonomiko horien sustatzaileei ahotsa emanez eta haien artean elkar ezagutzeko eta konektatzeko aukera emanez.

Horren bidez, beren bizitza-proiektua herrietan eraikitzeko apustua egiten ari diren proiektu eta pertsona horiei ikusgarritasuna eman nahi izan zaie, eta, aldi berean, biztanleria-dentsitate txikiko espazio horietan dauden hainbat premiari erantzuten zaie. Jardunaldi horien helburua izan zen, halaber, proiektu horiek aurrera eramateak dakartzan aukerei eta zailtasunei buruzko topaketa- eta hausnarketa-gune bat sortzea eta ikaskuntza- eta truke-dinamika bat sortzea.



Lehen topaketa – Azaroak 17 – Añanako Gatz Harana Fundazioa

16:00 Irekiera instituzionala

16:10 Katalogoaren aurkezpena

16:20 Ekimenen aurkezpenak

- Baso kudeaketa jasangarria. Iñaki ETXEBESTE (Errez kooperatiba)
- Zizare humus ekoizpena. Andrea CORTES (Humus de Añana)
- Audikanako ihes gela. Conchi JIMENEZ (Lautada Puzzle Room)
- Transmedia komunikazio proiektua. Aritz IBAÑEZ (Mendialdea Radio)
- Energia erkidegoak. Rafa LARREINA (EMASP kooperatiba)
- Adinekoen zaintzarako Teknoadineko Landalab. Mila LOPEZ ALDAMA (Agintzari kooperatiba)

17:30 Atsedendia

18:00 Elkar-truke eta ko-sorkuntza dinamika (Taldeetan)

18:45 Itxiera



Bigarren topaketa – Abenduak I – Arraia-Maeztu

16:00 Irekiera instituzionala

16:15 Ekimenen aurkezpenak

- Proposamen gastronomiko berritzailea. Edorta LAMO (Arrea! Jatetxea)
- Ogi lantegia eta agrodenda. Anna MONTSERRAT eta Nacho BELTRÁN DE HEREDIA (Mendialdeko Ogia)
- Azala sorkuntza espazioa. Idoia ZABALETA (Espacio Azala)
- Baserri hutsen biziberritzea. Gorka EGIA (Egia Aholkularitza)
- Landa eremuko etxebizitzaren berregokitzea. Leyre CARLOS (ADD Home Staging)
- Landa eremurako mugikortasun positiboa. Patxi MIRANDA (Kudea Go!)

17:15 Atsedenaldia

17.45 Elkar-truke eta ko-sorkuntza dinamika (Taldeetan)

18.45 Itxiera



Topaketetan sortutako dinamika eta gogoeten emaitzak

Ekimenen aurkezpenak entzun ondoren partaideen arteko lan dinamika antolatu zen. Bi topaketetan, hogeina pertsona inguru bildu ziren. Horien artean zeuden ekimenen sustatzaileak, baina baita ere unibertsitatetik etorritakoak, landa garapen elkarrekin, arlo politikotik zein herritar soilak ere. Talde txikietan banatuta, ondorengo galderak planteatu zitzaizkien. Lehen galdera talde guztietan eta bi saioetan landu zen, eta beste hiru galderak taldeka banatu ziren:

- ✓ Aurkezpenak entzun ondoren: Zer iradoki dizute esperientziak? Zer azpimarratuko zenuke?
- ✓ Ze zerbitzu, laguntza edo plataforma dira edo izango lirateke lagungarriak ekimen horiek guztiak laguntzeko?
- ✓ Nola lortu / antolatu ekimenen arteko lankidetzak eta sinergiak? Zein arlotan?
- ✓ Ze politika publiko beharko genituzke, maila desberdinetan, landa eremuari behar duen bultzada emateko?



Aurkezpenengatik galdetuta, ekimenen **izaera berritzailea** eta **nortasun soziala** nabarmendu zituzten bertaratutakoek beste ezaugarrien gaitetik. Gainera, egitasmo gehienak pertsona erdigunean jartzen dutela aipatu zen. Beraz, esan dezakegu ekimenok **berrikuntza soziala sustatzen dutela**. Kide batzuek aipatu zuen lehen sektoreari lotutako ekimenak urriak zirela, eta mota honetako gehiago espero zitezkeela.

Aipatu zen ekimenak oro har “administrazio publikoaren gaitetik” pasatu zirela. **Ekintzaileak haien indar eta ahaleginari esker** aurrera atera dituzte egitasmoak, hainbat kasutan laguntza publikoak jasota, baina ez beti. Oro har inizatibean izaera berritzaile horretara egokitzeko zailtasunetan oinarritzen zuten partaideek erakundeen babes hori jaso ez izana.

Bertako komunitateak ardatz eta hauen onura helburu bezala hartuta, **erronka globalei erantzuten dietela** adierazi zen zabalki. Alegia, ekimenak landa eremuko beharrei zein erronka globalei erantzuten saiatzen direla: Ingurumena, zaintza, etxebizitza, mugikortasuna, jasangarritasuna, osasuna, krisi energetikoa, eta abar. Honela, **landa eremuaren irudi positibo eta eguneratua** ematen da.

Azpiarratu zen ekintzaileen **ilusioa** eta hori kutsakorra suertatzeko aukera, hala nola nabariak diren beraien proiektuak aurrera ateratzeko **zailtasunak gaititzea**. Neurri apalago baten, sareak sortzeko garrantziaz ere aritu ziren lan taldetan, **ekimenen estrapolatze aukerak** goraiapatuz. Eta deigarria egin zitzairen Pandemiaren efektuak aurkezpenetan izandako agerpen eskasa.

Dinamiketan aurrekoak bezainbeste nabarmendua izan ez bazen ere, aipatua izan zen bere garrantzia eduki dezaken, proiektu hauen atzean dauden pertsonen edo beraien ibilbideen, isilezko ezaugarri amankomuna. Ekimen gehienek ez dutela pertsona hauen jatorrizko hezkuntza edo lanbidearekin zerikusirik, **beraien bizitza proiektua landa-eremuan aurrera eramatea ahalbidetzen dieten deribak onartu ez ezik, batzuk behartu dituztela**, alegia. Hau da, ekintzaileek arlo profesionalean eta bizitzetan bertan emandako norabide aldaketa onartuta edo, aldaketa honen bilaketan, beraiak eraginda sortutako ekimenak direla.



Proiektuak garatzeko lagungarriak suertatu daitezkeen zerbitzu, laguntza edo plataformagatik galdetutakoan, administrazio publikoen inplikazio haundiagoaren beharra aipatu zen gehien bat, **agentzia edo lehiatila bakarraren idea** agertu zelarik, **ekimenen difusioa** indartzearen ideiak bigarren postua eskuratuz. Beste maila batean, **sareen sorkuntza eta dinamizazio soziala** proposatzen ziren lagungarri bezala.

Ekimenen arteko lankidetzeta eta sinergien sortze edo antolakuntzagatik galdetutakoen artean, **sareen sorkuntzaren** ideia bera agertu zen, besteen gaineratik kasu honetan. Aukera honetaz hitz eginda, **elkarteen zein kooperatiben forma juridikoak** izan ziren komentatuak. **Komunikazioa indartuz** proiektuen ezagutza bultzatzea ere garrantzi handikoa iruditu zitzaien.

Azkenik, ze politika publiko beharko genituzke, maila desberdinetan, landa eremuari behar den bultzada emateko galderari jasotako erantzunek, **landa eremuko ikuspuntutik sustaturiko politikak**, zein araudiak eta ratio gabeko zerbitzu publikoak, mugikortasuna eta bertoko eskolak bereziki, seinalatzen dituzte giltzarri nagusitzat, ko-gobernantza eta dinamizazio soziala garrantzitsutzat markatuta ere.





**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez